

puntuua

A full-page photograph of a mountain biker in a blue and black jersey riding a yellow and black bike on a steep, rocky trail. The trail is composed of large, grey, jagged rocks with patches of green moss. In the upper left, two other people are visible climbing the rocks. The sky is a clear, bright blue.

BI GURPILEN GAINEAN

ANBOTON GORA
ETA BEHERA,
MARKEL URIARTEREN
ETA ARITZ GORDOREN
—ISTORIA



PUNTUA | 038

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARITZ GORDO



- 3 **Nire txanda**
81. Amama
- 4 **Bat-batean**
Jabier Muguruza
- 6 **Irudiz**
25 urte kirol argazkiak saritzen
- 8 **Mundutik**
Kukama Kukamiria herria
- 10 **Erreportajea**
Aurreiritziak aldatu dituen elkarbizitza
- 16 **Iritzia**
Laguntzen dizunari

- Eutanasiaren eta suizidio lagunduaren gaineko legedia
- Joxe ta Piku
- Munduko Errugbi Kopa
- 18 **Talaiatik**
Europa Batuko asilo-sistemaren arazo eta kontradikzioak
- 20 **Elkarrizketa**
Jose Antonio Azpiazu historialaria
- 24 **BIZI**
- 24 **Osasuna**
Etorkizuneko medikuntzarako lanabesak sortzen

- 26 **Kirola**
Zer izango da hurrengoa?
- 28 **Adituen esanetan**
Sare sozialen abantailak eta desabantailak
- 30 **Otorduan**
Okela goxoak Hilarionen, udazkenerako eta negurako
- 32 **Moda**
Jantzi katiuskak euriari aurre egiteko
- 34 **Motorra**
Asier Unzetabarrenetxea, lehiatzeko gogo handiagoarekin
- 36 **Gure artistak**
Juan Antonio Untzuruntzaga

- 38 **Kultura**
45 urteotako oinatzak, aurrera egiteko indarra
- 40 **Liburu artean**
Indignación
- 41 **Goienakideak**
- 42 **Gure altxorrak**
Oñatiko *txokolatera*
- 44 **Komunikazioa**
Lidergoa
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen**
- 46 **Egin eta jan**
Banilla eta kakao kiribilak
- 47 **Jaioberriak**

NIRE TXANDA



Maddi Iñarra

81. Amama

Pasa den asteburuan Bergaran Asier Altunaren *Amama* filma ikusteko aukera izan genuen.

Asko gustatu zitzaidala esatea gutxi da, baina, ordutik, aspalditik barnean izan ditudan ezinegon batzuk areagotu zaizkit.

Pelikulan, Neolitikotik datorren bizimodu eta mundu ikuskera baten gainbehera

aurkezten zaigu. Badirudi 81.

Amama ez dela aurreko 80en berdina izango. Sagarrondoak moztuko direla, ardiak kendu, baratzeak txikitu, kaleak bete eta baserriak hustu. Iraganarekiko sokak moztu. Ulertzen dut bide berrietan mapa zaharrekin ibiliz gero galdu egin daitekeela bat,

'Aro berriak' lehen zentrala zen naturari errespetua guztiz galdu dio

geroz eta aldakorragoa den ingurunera egokitu behar dela.

Baina aurrera begiratu eta Zygmunt Baumanek irudikatu bezala sentitzen naiz: altxera handian, bat-batean, kabinan piloturik ez dagoela jabetzen den hegazkin bidaiaria bezala.

Nora goaz? Badirudi *aro berriak* lehen zentrala zen naturari errespetua guztiz galdu diola, eta diruaren izenean behin eta berriz bortxatzen duela; ondasunak pilatzeko lehia itsuan gure janaria norbaitek landatu behar duela ahaztarazi digula eta mendeetako jakintza entretenimendu kontsumistan eta hedabideen mezu manipulatuan diluitu duela.

Niri ere, Amamari bezala, sartzen zait haitzulora ihes egiteko gogoia. ■

puntua

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal
Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Monika Belastegi
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe
Euskara arduraduna Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa Marta Leturia

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Lege Cordilluz: SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

goiena | TOKIKOM



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

Jabier Muguruza

Irungoak gaur emango du Donostian 'Tonetti anaiak' lana aurkezteko lehen kontzertua eta diskoan parte hartu duten musikariak izango ditu alboan.

TESTUA: TXOMIN MADINA ARGAZKIA: JAVIER TOLOSA

Haurtzaroko oroitzapenetatik tiraka izendatu duzu diskoa. Nostalgia eragilea? Garai hartan zirkua herrira etortzea gertaera handia zen. Tonetti anaiak Atlas zirkuko pailazoak ziren, aitzak ezagutzen zituen eta Irunera etorri zirenean eurekin egon nintzen karabanan. Une hartan zoriontsua izan nintzen, baina, gutxira, pailazoetako batek bere buruaz beste egin zuen eta kolpe handia izan zen niretzat. Orain gutxi, baina, Oskar Alegriaren *Emak bakia baita* pelikulan ikasi dut pailazo bat ez dela sekula hiltzen, eta lasaitu egin naizela kontatzen dut; oso literarioa da, ikusten denez.

Zertan nabari da Tonetti anaiak dagoeneko hamalaugarren diskoa duzula? Egileak, artistak, beti galdera egin behar dizkio bere buruari, eta, kasu honetan, sonoritate konkretu bat lortu gura nuen. Jazz musikari handiekin, Kataluniako auditorium baten eta zuzenean grabatuta, uste dut lortu dugula.

Oraingoan ere, euskal kulturako izen ezagunen letrak daude diskoan. Bada alderik norberak edo beste batek idatzitakoak abesterakoan? Ez daukat garbi. Esaterako, Iñaki Irazurrekin Les Mecanicien garaitik nabil elkarlanean, 25 urte inguru, eta hark proposatutako letrak nire ere sentitzen ditut. Gertuko jendea denean, mundua ikusteko moduan sintonia dagoenean, ia zeureak balira bezala barneratzen dituzu.

Bederatzi kantu dakartza. Zenbat geratu dira kanpoan? Galbahea beti pasatu behar da, baina zaila da azaltzea zeren araberakoa den... *Feeling* kontua da. Onartzen ez dudana da galbahe lana diskoetxeek egitea.

Musikari euskalduna Katalunian grabatutako diskoa Madrilgo diskoetxe batekin kaleratzen. Deigarria, behintzat, bada... Izan daiteke, baina ez niretzat. Madrilgo Resistencia diskoetxearekin argitaratzen dudana bosgarren edo seigarren diskoa da, eta Kataluniarekin dudana harremana aspaldikoa eta gertuko da: El Vendrellgo auditoriuma grabazioetarako nahi bezala erabiltzeko aukera eman digute gero kontzertu bat ematearen truke. Nik modu naturalean bizi dut.

Kanpoan bezain estimatua sentitzen zara etxean? Gaur egun esango nuke baietz. Uste dut izaera kontua ere badela: Bartzelonan emandako lehen kontzertuaren ostean, hango egunkari batek *Delicioso* titularra jarri zion kritikari; hemen, aldiz, hainbeste kostatzen da kontzertu bat txukuna izan dela irakurtzea...

5 urterekin eskusoinua oparitu izan ez balizute, musikari izango zinen? Zaila da esatea... Haurtzarokoan, musikarekin esperientzia gazi-gozoa izan nuen: lehiaketen presioa zegoen, baina musikak sentimenduak eta adierazteko bidea ere eman zidan. Esango nuke azken horrek pisu handiagoa izan zuela.

Zaila azken 30 urteotako euskal musika erreparatzea Muguruza abizena aipatu gabe.

Nola daroazue? Ahal den moduan: batzuetan ondo, beste batzuetan ez hainbeste. *Tonetti anaiak* aurkeztu nuen egunean kazetariak esaten zuten, txantxetan, jada nahikoa zela gurekin. Ulertzen dut apur bat gogaitzen dugula, kar, kar, kar!

Irakurriko dugu zuk idatzitako liburu berririk? Horixe jakin nahiko nuke nik ere! Liburuak idaztea bai dela gogorra: uneoro erne egon behar da, atsedenik hartu gabe, apunteak hartuz... Nagikeria apur bat ematen dit, egia esan. ■





25 urte kirol argazkiak saritzen

ARGAZKIA: ASIER CASTRO
TESTUA: ENEKO AZKARATE

En paralelo du izena argazkiak. Bergarako Udalak antolatzen duen Kirol Argazkien Lehiaketara Asier Castrok aurkeztu eta zuri-beltzekoetan bigarren saria jaso du.

25 urte bete ditu aurten lehiaketak. Irudi ikusgarriak eman ditu; baita aurtengo edizioak ere. Joan den barikuan banatu zituzten sariak Bergarako Aroztegi aretoan eta 40 argazki daude ikusgai bertan domekara arte. Guztira, 137 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara –62 zuri-beltzean eta 75 koloretan–. Hamasei bergararrek aurkeztu dituzte lanak.

Argazkia Frantziako Pirinioetan aterata dago: Gavarnieko zirkuan.



Lehiaketan sarituak izan diren beste irudi batzuk ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

'Kukama Kukamiria' herria

MUNDUTIK



Maddi Txintxurreta
Perun dagoen bergarra

Kukama kukamiria herria Brasilgo Amazonastik etorri zen Perura, espainiarren konkista baino 200-300 urte lehenago. Peruko Amazonas-Goiko Loreto eskualdean hainbat herri sortu zituzten eta naturak eskaintzen dizkien baliabideekin bizi dira oraindik ere.

Kultura horretako eredu da *7 de junio* komunitatea –*Katsi de junio* da, *kukama kukamirieraz*–.

Ederra da 7 de junio. Lagunas lakuaren ibaiertzerara begira dagoen zelai berde bat da, egurrezko eraikinez inguratuta. Gehienak etxebizitzak dira, baina eliza bat eta eskola ere badaude. Eraikin guztiak lurretik metro eta erdira daude, eta, eurite handien denboraldietan, herritarrak kanoaz ateratzen dira etxeko atetik. Bestela, txerriak eta oiloak eta txakurrak nahieran ibiltzen dira belarretan.

Komunitate hori 2004ko ekainaren 7a ezker bizi da Lagunas ertzean; hor, izenaren jatorria. Iparralderago bizi ziren lehen, ganadu eta guzti. Baina eurite bortitz batek beraien azienda guztia hil zuen eta berriro hasi behar izan zuten.

Hamar familiak osatzen dute *7 de junio* komunitatea. Gutxi gorabehera, 60 pertsona izango dira. Horietatik bik



ARGAZKIAK: MADDI TXINTXURRETA

bakarrik daukate 65 urte baino gehiago, bizi-itxaropena txikia baita. Askok ez daukate identitate dokumenturik, ez dira existitzen estatuarentzako. Batzuk alfabetatu gabekoak dira. Hala ere, egun dauden ume guztiak alfabetatuak dira.

Beraien errutina sinplea da: gizonak arrantzara joaten dira egunero, oilarrak abestu baino lehen. Egunez kaña erabiltzen dute, zuhaitzaren arrama bat pita sokarekin eta amuarekin. Gauez, linterna ahoan eutsita, arpoi txiki bat jaurtiz egiten dute arrantza. Arraina jaten dute gosaritarako eta bazkaritarako. Emakumeak

etxeko lanetan geratzen dira, gehienetan, janaria prestatzen eta ume zaintzan. Badaukagu beraien antzik gai horretan.

Oihanera ere ateratzen dira fruitu edo belar sendagarrien bila, matxetea eskuan beti. Txori bakoitzaren kanta ezagutzen dute, intsektu eta landare bakoitzaren izena dakite eta animalien zaratei adi egoten dira. Badakite noiz egingo duen euria.

Komunitateko ume guztiak eskolara joaten dira egunero, edade banaketa barik. Irakasle bakarra daukate. Eskolako paretak *kukama kukamirierazko* hitzez jantzita daude, gaztelararako

itzulpenarekin. Denbora librean, zelaian futboleko jolastu eta Lagunasen bainatzen dira, pirañei kasurik egin gabe. Egurrezko plataformak dituzte uretan, bertatik salto egiteko. Beste batzuetan, oihanean jolasten dira, ortozik, zuhaitzetara igotzen eta animalia bila. Komunitatetik gertu, Lupuna izeneko zuhaitz bat dago, 400 urte dituen. Haren lianetatik bi leria daude zintzilikatuta, umeek jolasteko. Ez mugikorrik, ez telebistarik, ezta kromorik.

Herrixkako zaharrenek *kukamaz* berba egiten dute, baina hizkuntza galtzar dago komunitate horretan.

Katsi de junio komunitateko hiru ume jolasean.

Gaztelaraz komunikatzen dira beraien artean, eta, umei erakutsiz hizkuntza berreskuratzeko ahalegina dagoen arren, ez dute lortu oraindik *kukama kukamiriera* normalki hitz egiterik.

Europar batendako zaila da teknologiari bizkarra emanez bizi den komunitate bat imajinatzea. Basatitzat jotzen ditugu argindarrik eta ur korronterik gabe oihanean bizi diren pertsonak, tributzat. Ehizatutako animalien larru-arropak jantzita suaren inguruan erritual ilunak egiten irudikatzen ditugu, ahoan ilargiari otoi egiten, dantzan.

Eta bai, arpoiarekin arrantzatzen dute eta matxetearekin zuritzen dituzte tomateak. Umeak zuhaitzetara igotzen dira erraztasun osoz, eta Suri izeneko larbak jaten dituzte. Gauez, ilargiaren argiarekin bainatzen dira eta lakuan garbitzen dira.

Baina futboleko kamisetak janzen dituzte, natura zaintzen dute eta beraien *ekonomia* hartu-emanean oinarritzen da. Hango *wakaya* hitzak zera esan nahi du: zerbait beste zerbaiten orde ematea, bai objektu bat, edo baita jakinduria elkarbanatzea. Zibilizatuena oihanaren erdian daude, antza. ■

Aurreiritziak aldatu dituen elkarbizitza

Arrasateko San Juan de Dios Ospitaleak proiektu pilotu bat egin du Arizmendi-Almen Ikastolarekin elkarlanean. Buruko gaixotasun larriak dituzten hamabost lagunek eta espediente akademiko bikaineko bederatzi ikaslek lau egun elkarrekin bizi izan dituzte.

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: JAGOBA DOMINGO ETA MIKEL DURAN

Elkarbizitza proiektu aitzindaria egin dute Arrasateko San Juan de Dios Ospitaleak eta San Juan de Dios Fundazioak Arizmendi-Almen Ikastolarekin. Lau egunez, gaixotasun mental larria duten hamabost paziente eta Arizmendi-Almeneko bederatzi ikasle elkarrekin bizi izaten egon dira Arabako Arespalditza herrian.

Pazienteei hutsetik hasteko aukera eskainiko zien espazio bat nahi zuten proiektuaren arduradunek, eta, horregatik, elkarrekin bizi izateaz gain, hainbat ariketa egin dituzte elkarrekin gaixoek eta ikasleek. Esate baterako, eguneroko bizitzarako ezinbestekoa den antolaketa gaitasuna landu zuten, lau egunerako menu bat eta haren aurrekontua prestatuta.

Eguneroko ohiko ekintzak ere konpartitu zituzten. Horrela, batetik, gaixotasun mentala dutenek ikusi

ahal izan zuten egonaldi luzeko unitate baten ingratuta egotetik haragoko bizimoduak eskaini dezakeena; eta bestetik, gazteen sentsibilizazioaren bidez, etorkizunean, gaixotasun mentala dutenek gizartearen irudi negatiboa aldatzeko balio izatea bilatu dute proiektuaren sustatzaileek.

AURREIRITZIAK ALDATUZ Proiektu horrekin praktikan jarri nahi izan dute iragan urriaren 10ean izan zen Nazioarteko Osasun Mentalaren egunaren leloa: *Jar zaitez nire lekuan. Konektatu nirekin*. Aurreiritziak zituzten gazteek, baina San Juan de Dios ospitaleko gaixoek ere zalantzak izan zituzten proiektuari baietza eman aurretik. Hala ere, elkarrekin lau egun igaro ondoren, ondorio nagusia izan da elkarbizitzak elkarrengana-ko zituzten aurreiritziak erabat aldatu dituela. ■



San Juan de Diosko gaixoak eta Arizmendi-Almeneko ikasleak Arespalditzan.



XABIER LOIARTE
OSPITALERATUA

“Ez gara arriskutsuak, pertsona normalak bezala bizi gaitezke”

Xabier Loiarde 20 urterekin gaixotu zen. Gaur egun, 40 urte ditu: “Denboraldi batean, ahotsak entzuten nituen nitaz hitz egiten edo ondokoek nitaz hitz egiten zutela iruditzen zitzaidan”.

Arespalditzako esperientziak aldaketa bat ekarri du andoaindarraren egunerokotasunean: “Arespalditza aldaketa bat izan da bizitzan, ospitaleko bizitza eta Arespalditzakoa oso desberdinak dira eta. Ospitalean egunero paseatzen edo beste zerbait egiten egoten zara, ez duzu ezer egiten eta ez duzu ezer ikasten. Arespalditzan aktibitateak taldeka egiten genituen, txangoak, taldeka ohitzeko giro bat... Ospitalean gure arteko harremana nahiko individualizatuta dago. Nor bere kaxara joaten da. Nork bere arazoak ditu”.

Ikasleekin elkarbizitza erraza egin zitzaiola aipatu du: “Nahiko azkar ohitu nintzen, eta ez zitzaidan askorik kostatu jendearekin erlazionatzea. Nire buruari erakutsi diot beste gauza batzuk egiteko gai naizela. Ospitaletik ateratzeko pausoak emateko. Ikasleek ere esaten dute gaixoak direnen eta ez direnen artean ez dagoela horrenbesteko ezberdintasunik. Edozein izan daitekeela gaixoa, eta gaixoa ere onera joan daitekeela. Jendeak ez du pentsatu behar psikiatrikoan egoteagatik beste pertsona mota bat garela. Ez gara arriskutsuak, ezta biolentoak. Pertsona normalak bezala bizi gaitezke”.



AIERT OLASAGASTI
OSPITALERATUA

“Oso fina da ‘ondo’ egotearen eta ‘txarto’ egotearen arteko marra”

Drogen munduan sartu ondoren ospitaleratuta bukatu zuen Aiert Olasagastik. “Ez nintzen jende onarekin elkartu, eta, azkenean, drogen munduan bukatu nuen. Kontsumoari ama gaixo bat eta aitaren falta gehituta, hori bonba bat izan zen, eta 23 urte nituenean bonba hori lehertu egin zen. Arazoak hain okerrera jo zuen, ospitaleratzera iritsi arte”, dio andoaindarrak.

“Arespalditzak nire bizitzari bi buelta eman dizkio. *Ondo* egotearen eta *gaizki* egotearen artean dagoen marra edo haria ez dela lodia, baizik eta oso fina dela konturatu naiz. Alde baten egon zaitezke momentu batean, eta segundo bat pasata beste alderdira pasa zaitezke”, dio Olasagastik.

Ondo egoteko, aurrera egiteko gogoia behar dela azpimarratu du: “Nik ez badaukat aurrera egiteko gogorik, ez dut ezer aurreratuko. Kontrakoa, atzeratu egiten da. Gaixotasuna neukala konturatu nintzenean, orduan hasi nintzen lanean, aurrera egiteko. Nahiz eta pixkanaka izan, orain kontsumoa ia utzita daukat”.

Arizmendi-Almen Ikastolako ikasleei gomendio argia eman zien Olasagastik: “Argi utzi nahi nien haiek daudela adin batean drogak oso gertu dituztela inguruan. Oso erraza da pauso batekin nahi duzuna lortzea. Argi utzi nahi izan nien hobe dela mundu horretara ez gerturatzea, bestela kaltetuta irten zaitezke eta”.



MARIA LUISA GALARRETA
OSPITALERATUA

“Arespalditza inflexio-puntua izatea nahiko nuke denontzat”

Langabezian gelditu ondoren alkoholarekin arazoak izaten hasi zen Maria Luisa Galarreta: “Lanik gabe gelditu nintzen, etxean. Denbora luzeagoa izanik, zenbat gauza gaizki egiten ari nintzen ikusten hasi nintzen. Gaizki joaten zirela gauzak nire etxean, eta horrelakoak. Orduan hasi nintzen edaten. Asko edaten nuen eta nire kalbarioa hasi nuen psikiatriko batetik bestera, honaino heldu arte”.

Jendeak psikiatrikoetan dauden gaixoei dituen aurreiritziak aipatu ditu beasaindarrak: “San Juan de Diosen edo beste hainbat psikiatrikotan gaudenoi beldurrez ikusten gaituzte. Biolentoak garela eta ezin dela gurekin egon. Oso bereziak garela uste dute. Ez dute gurekin egon nahi. Izena aldatu egin dute; orain, psikiatriko deitzen diote, baina jendeak zoroak garela uste du oraindik. Beste ospitale batzuetan beste gaixotasun batzuk zaintzen dituzte. Bihotzekoak, beso puskatuak... eta ez dira konturatzen gurea beste ospitale mota bat dela. Bakarrik lantzen dena gaixotasun mentalak direla. Baina ez gara pertsona ezberdinak”.

Ikasleei mezu argia eman zien Galarretak: “Ikasi dut, aurrena eta oso garrantzitsua, guk bakarrik egin ditzakegula gauzak, eta ikasleei gauzak guk egin ditugun bezala ez egiteko esan nien. Hori nahi genien erakutsi neskei. Ze erraz egon daitekeen edozein hor sartuta”.



JORGE JUAN MARTIN
OSPITALERATUA

“Berdinak garela konturatu naiz elkarrekin bizi izanda”

Jorge Juan Martin hernaniarra 18 urte zituela hasi zen gaixotasunarekin: “18 urterekin hasi nintzen arazoarekin. Tratamendua jarraitu behar nuela esaten zidaten, baina nik ez nuen kasurik egiten, ez nuen onartzen. Hori dela eta, arazoak izan ditut. Gaixotasuna etorri zait, tokatu zaidalako. Ez da bestelako egoerarik egon. Tokatu zait eskizofrenia, eta horrela izan da”.

Buruko gaixotasunak dituztenek egin behar duten aurrenekoa gaixotasun hori onartzea dela azaldu du Jorge Juan Martinek: “Gaixoei gaixotasuna dutela onartu behar dute. Gero, tratamendua jaso eta jarraibideak jarraitu”.

Ospitaleratuta egon den urte guztietan ez duela ezer galdu ere adierazi du hernaniarrak: “Ez dut ezer galdu urte hauetan. Irabazi egin dut. Ni ondo egotea. Egun osoa konpentsatuta egotea, hain zuzen ere”.

Arespalditza gaixoendako oso esperientzia aberasgarria izan dela onartu du: “Terapiak, jokoak, janaria prestatu eta beste hainbat gauza egin ditugu. Nik bakarrik etxe bat ezin nuela eraman uste nuen. Hor egotean, konturatu naiz berdinak garela, ikasle horiek gu bezalakoak direla. Horrela ikusi dut nik”.

Etorkizunari begira jarraitu beharreko bidea argi du: “Batzuek esaten dute alta hartu nahi dutela, baina nik alta hartu baino lehen ondo egotea nahiago dut”.



“Ikasi dugu pertsonak direla eta ez direla baztertu behar”



LAURA GONZALEZ

“Gaixoak eurak ere errealiterata irteera bezala izan da. Egunen batean irteera dira, eta, horregatik, euren aurrerapauso bat izan da. Jendeak uste zuen eurei laguntzera joango ginela, baina, nire ustez, eurek guri gehiago lagundu digute guk eurei baino. Pertsona batek ulertzeko guk sentitu duguna, uste dut ezin dela hitzekin esan. Bizi egin beharko litzateke.

Oso pertsona onak dira gaixoak, oso alaiak. Gaienez dutena edukita, egun osoa barrezka daude. Ni, euren egoeran, horrela ezin izango nintzatekeela egon uste dut. Eurek indar hori dute, ez dutela hor egon nahi eta kalera irten nahi dutela, eta euren bizitzak jarraitu nahi dituztela.

Drogekin-edo dabilen batek guk ikusi genuen egoera ikustea gustatuko litzaidake, jakiteko ez dagoela hain urrun euren gurengandik, ezta gurengandik”.



LOREA ARMENDARIZ

“Lehenengo egunean, Arespalditzara heldu ginenean, gaixoak soilik ziren, gaixo moduan ikusten genituen. Baina gero, konturatu ginen gau hartan bertan gauza berdina egiten genituela eurekin, eta pertsona moduan tratatzen genituen. Azkenean, gaixoak direla ahaztu egiten zaizu. Pertsonak dira, berdin-berdin. Zure lagun batek bezala, gauza berdina egiten dituzte.

Nik neuk, lehen, buruko gaixotasuna duen norbait baztertu edo saihestu egingo nuen, agian, edo distantzia mantenduko nuen. Orain, lagundu egingo nioke eta pertsona normal baten moduan tratatuko nuke.

Azkenean, pertsonak dira eta beste pertsona batek bezala lagun zaitzakete. Ez dira baztertu behar. Haietako askok euren bidea ez jarraitzeko esan ziguten, gu garen bezalakoak izaten jarraitzeko”.



MARIA JARA

“Nik uste nuen agresibo samarrak-edo izango zirela. Ospitaleak ilunak zirela eta ez zutela jokorik egiten edo barrerik egiten. Dena oso serioa zela uste nuen, baina guztiz kontrakoa izan da. Eurak beti saiatzen ziren gu ahalik eta eroso egoten.

Pertsona horiek ahal duten neurrian lagundu egiten dizute, eta denok merezi dugu beste aukera bat bizitzan. Oso atseginak dira eta kristoren barreak egin ditugu. Nolako naizen eta nolako gauzak egiten didaten kalte konturatu naiz, eta nire bidetik, ikasten, ondo noala.

Ikusi dut zer-nolako ondorioak dituen horrelako bideak hartzeak eta orduan badaikit horrelakoak ezin ditudala hartu. Uste dut hemendik aurrera gauzak gehiago pentsatu beharko ditudala. Hau da, nola egin, zer aukeratu eta zer ez”.



MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

EROSKI online
zurekin



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100-era
iristen gara



Iban Perez

Laguntzen dizunari

Batek baino gehiagok korrika sartu du bere errutinan pasa berri den Behobiari esker –eta, noski, egoera hau eztabaidagarria da–. Tamalez, zutabe honetan ez daukat gai hori jorrazteko nahiko toki; beraz, beste ikuspegi bat emango dizuet ekitaldi horren inguruan.

Aitortzen dut behin bakarrik erakarri nauela Behobiak. Korrika munduan hasi eta bigarren urtearen hasieran izan zen. Zergatik hitz egiten zen une oro nire lagun taldean lasterketa hari buruz?

Hiru hilabetez prestatzen ibili ostean, astean lauzpabost entrenamendu egiten, azaroko igande hotz batean deskubritu

BIZITZAN GUSTUKO DUDANA EGITEN DISFRUTATZEN JARRAITUKO DUT

aldeetako batean egongo naiz txalotzen. Eta lasterketa horri esker batzuk korrika munduan hasi badira, ongietorria ematen diet.

Beste batzuk, aldiz, lasterketa batek ez, familiak edo pertsona zehatz batzuek sartu digute kirolaren benenoa odoletan. Horregatik, poztekoa da Behobiaz kanpo herri kirolaz disfrutatzen duenik ere badagoela ikustea.

Behobia begi onez ikusi edo ez, esker ona erakutsi bultzada horiek eman dizkizuetenei eta gozatu egunez egun!

Memoriak huts egin arte horiei erakutsiko diet esker ona, eta bizitzan gustuko dudana egiten disfrutatzen jarraituko dut! ■

nuen Behobia. Ez naiz bueltatu proba horretan dortsala jartzera, ez dudalako gogorik izan. Ez da erakartzen nauen lasterketa bat.

Baina errespetatu egingo dut proba hori begi onez ikusten duen jendea. Lagun asko ditut joaten direnak helburu ezberdinekin, eta, ahal dudanetan, errepideko bi

Eutanasiaren eta suizidio lagunduaren gaineko legedia

Gaur egun, zigor-kodeak eutanasia eta suizidio lagundua zigortu egiten ditu; aldatu egin beharko litzatekeela uste al duzu?



Luis Azpiazu
Irakaslea

Bai; bizitzaren amaiera erabakitze eskubideak legez onartuta egon beharko luke gizarte demokratiko eta anitz batean. Erabat ezmorala iruditzen zait sufritzen ari denari bere bizitzaz erabakia hartzen ez lagatzea eta nahi duen moduan hiltzeko bitartekorik ez ematea. Ez dago ez jainkorik, ez estatuturik, norbait bere borondatearen aurka bizitza luzatzera derrigor dezakeenik.



Nerea Lertxundi
Erizaina

Bizitza eskubide bat da, eta ez betebeharrak. Duintasuneko bizitza bat izaten ez denean, eutanasiaren atea zabaltzen zaigu. Duintasuna gai konplikatu da eta pertsona bakoitzarentzat desberdina izan daiteke. *Eu ona, thanatos* heriotza. Etimologiak ez du heriotza duina lortzeko baliabiderik ematen, baina bizitza ezagutzen duen orok heriotza ere ulertu behar du.

Iñaki San Miguel



Gema Bikuña
Erizaina

Ez dakit zehazki non dagoen muga lege kontuan, baina gure lanean, badakigu noiz dagoen paziente bat bizitzaren bukaeran eta badakigu horri languntzen heriotza duin bat izan dezan, arnas sintomak edo mina arintzen. Betiere pazientearekin eta bere familiarekin adostu behar da. Gaur egun hori nahiko barneratuta dago, eta lege barruan dagoen sedazio terminala egiten da.



Joxan Larrañaga
Parrokoa

Uste dut bizitzaz eta heriotza duinaz norberak duen iritzia erabera erantzun daitekeela galdera. Nire ustez, legeek beti gizakiaren zerbitzura jarriak egon beharko lukete. Gaur egun, baina, botiken bitartez bizitza asko luzatzeko aukera dago. Hala ere, hainbat alditan duintasunik gabeko bizitza pairatzen dela esango nuke. Legea denoi berdina aplikatu behar al zaie?



Iñaki Ugarteburu

Munduko Errugbi Kopa

Urriaren 31n bukatu zen Munduko Errugbi Txapelketa. Zeelanda Berria txapeladun. Erakustaldia eskaini ziguten: joko mailagatik eta jokabideagatik. Ospatu egin zuten, errespetuz, jokalarien, epaileen eta entrenatzaileen artean, elkarri eskua edo besarkadak emanez.

Betidanik gustatu izan zait errugbia. Urte askotan ibili naiz jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritza-kide... 80ko hamarkadan, kezka eta zatiketa gertatu zen; betidanik jokalaria zaleak (ez-profesionalak) izan zituen kirol honetan, ikusten zen kirol-maila hobetzeko gehiago entrenatu behar zutela; profesionalizazioa ezinbestekoa zela. Aldatzea erabaki zuten, eta profesionalizazioa onartu.

Munduko Kopa zenbakitan: 517 milioi dolarreko inbertsioa estadioetan; 2,4 milioi sarrera; 4.000 milioi ikusle telebistan; 400.000 bisitari Britainia Handian; eragin ekonomikoa 3.000 milioi dolarrekoa.

Asmatu zuten aldaketarekin! ■



Agustin Untzuruntzaga
Gipuzkoako SOS
Arrazakeria

Europa Batuko asilo-sistemaren arazo eta kontradikzioak

Europa Batuko asilo-sistemaren oinarriak krisian daude. Nahiz eta arazoak eta ajeak aspaldikoak izan, errefuxiatuen krisiarekin, argiago ikusten da kontradikzioen sakontasuna.

Europa Batuak ez du asilo-sistema bateratu bat, nahiz eta arau batzuk komunak izan. Arautegi komunitarioekin batera, estatu bakoitzak bere lege eta arautegi propioak gordetzen ditu, eta beraien arteko kontraesanak, erabakietan, epeetan, babes-sisteman, eta abarretan, ugariak dira, egunero ikusten ari garen bezala.

Bestalde, komuna den arautegiak berak arazo larriak sortzen ditu, batez ere jendea asilo-eskaerak Dublin III sistemaren bitartez egitera derrigortzen duenean; hau da, lehenengo zapaltzen duten estatuan edo hatz-aztarnak hartzen dizkieten lehenengo estatuan asilo-eskaera egitera behartuz eta bertan itxarotera, estatu horrek erabakia hartu arte. Dublin III sistema ez dator bat Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 14.1 atalarekin: *Pertsekuzioa denean, pertsona orok du eskubidea beste herrietan babesa bilatu eta hura izateko*. Asiloa eskatzea pertsonen eskubide bat da, eta Europa Batuko estatuak kontuan hartu beharko lituzkete pertsonen nahiak. Ezin dituzte gaizki tratatuko dituzten leku batean, Hungarian, adibidez, asiloa eskatzera behartu eta bertan erabakiaren zain egotera.

Neurri batean, babestu egiten du Europa Batuak. Hori ezin da ukatu. Baina, eta hau ere ukazina da, ez du behar adina babesten, eta ez ditu asilo-eskaleak, errefuxiatu potentzialak, babes ordezkatzailerak jasotzeko eskubidea duten milaka eta milaka pertsonak behar den moduan tratatzen. Ez dio begi aurrean dugun krisi

humanitarioari behar den moduan aurre egiten. Eta ez ditu bere betebeharrak legalak betetzen. Europa Batuko estatu guztiak dira 1951ko Genevako Hitzarmenaren eta 1967ko New Yorkeko Protokoloaren sinatzaileak, eta sinatzen dena betetzeko dago, ez bakarrik norberaren aurpegia garbitzeko.

Europa barruan, estatuen arteko mugetan eraikitzen ari diren hesiak, neurri handi batean, frakaso humanitario eta legal baten adierazle garbiak dira. Europa Batuak gauza onak ditu, baina, baita aurpegi ilun asko ere. Nahiz eta politikari batzuek hala sinetsi, ez da hortik zehar ongia zabaltzen joaten den zaldun bat. Hor daude milaka eta milaka hildako Europako mugetan, milaka eta milaka iheslari batetik bestera bueltaka, kontrakoa erakusteko.

Pertsonen behartutako lekualdaketak

estrukturalak dira gure mundu globalizatu honetan, eta ezin zaie gogorkeriarekin eta neurri murriztaileekin aurre egin. Iaz, 2014an, 60 miloi pertsona zeuden desplazatuta munduan. Horietatik %10 –6 miloi– desplazamendu iraunkorrean zeuden, hau da, bost urte baino gehiago zeramaten desplazatuta. Sirian, 11 miloi pertsona daude desplazatuta, eta haietatik 4,5 miloi Siriatik kanpo. Eta pertsona horiek, eta

Arazoari ezin zaio aurre egin barku militarrek Mediterraneoan zabalduz

Korridore humanitarioak zabaldu behar dira larrialdi humanitarioen aurrean

beste askok, Afganistangoek, Eritreakoek eta beste leku batzuetakoek, babes internazionala, babes ordezkatzailerak, asiloa eskatzeko eskubidea dute. Eta arazo honi ezin zaio hesiak eraikiz edo Sofia Operazioaren bitartez, barku militarrek Mediterraneoan zabalduz, aurre egin.

Beste neurri batzuk dira beharrezkoak: Dublin III berraztertu egin behar da; Europa Batuan, agentzia edo agintaritzak berezi bat egon beharko litzateke asiloaren gaiak arduratzeko; indarrezko konfliktuak dauden lekuetatik datorren jendeari ezin zaie igarotze-bisa eskatu; indartu egin behar dira asiloa eskatzeko bide legalak, enbaxadetan eta kotsulatuetan asiloa eskatzeko bideak zabalduz; bisa humanitarioak eskatzeko bideak zabaldu egin behar dira; pasagune edo korridore humanitarioak zabaldu larrialdi humanitarioen aurrean; berriz asentatzeko programak indartu, banaketak modu zuzen eta solidarioan eginez, benetako asilo-sistema europar batean oinarrituz. ■

Jose Antonio Azpiazu Historialaria, XVI. mendean espezializatua

“Debagoienak ere lotura estua izan du itsasoarekin”

Harremana “halabeharrezkoa” izan da urte luzez, bereziki merkataritzarako; ‘Y los vascos se echaron al mar’ liburuan, oraindik kontatu ez diren zenbait pasarte jasotzen ditu egileak.

TESTUA: JOKIN BEREZIARTUA ARGAZKIAK: ELKAR ARGITALETXEA

Historia orokorrean eta bereziki aspaldiko euskaldunen bizimoduaren ikerketan ahalegintzea maite duen pertsona da Jose Antonio Azpiazu (Legazpi, 1944). Curriculum luzea dauka Oñatin bizi den historialariak: Donostiako Jakintza Ikastolan zuzendari izan zen; gero, Mondragon Unibertsitateko irakasle; eta ondoren, Oñatiko unibertsitate zaharreko Nazioarteko Lege Soziologiako erakundearen argitalpenen arduradun izan zen erretiroa hartu zuen arte. 20 liburu baino gehiago idatzi ditu, batez ere XVI. mendeko euskal bizimodua dutenak oinarri.

Argitaratu berri duen *Y los vascos se echaron al mar* liburuaren horren adibide da; 206 orrialde ditu liburu interesgarriak, ilustrazio eta guzti.


Euskaldunek itsasoarekin harreman “estua” izan zutela diozu. Eta debagoiendarrek?

Debagoienak ere lotura estua izan du itsasoarekin, halabeharrez. Hemengo lurra ez

zen emankorra eta burdin tresneria kanpoan saldu behar izaten zen kanpotik garia eta ardoa ekarri ahal izateko. Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko merkataria oso garrantzitsuak izan ziren zeregin horretan.

Debagoieneko zein herriak izan zuten harreman estuen itsasoarekin?

Arrasate, Bergara eta Oñati nabarmenduko nituzke. Arrasatek Europa osoan horren famatua zen altzairua saltzen zuen eta horretarako bitartekariak zituzten Bilbon zein Donostian. Arrasateko altzairua, Esteban Garibai arrasatear ospetsuak zioenez [Felipe II.a erregearen kronikaria izan zen Garibai], Milangoa bertakoa baino hobea zen. Bestalde, bergarrek armak eta lihoz egindako janzkiak esportatzen zituzten eta oñatiarrek, aldiz, iltzeak, ferrak eta zartaginak bidaltzen zituzten Sevillara, handik Ameriketara bidaltzeko.



Jose Antonio Azpiazu, liburu berria eskuan, Donostiako portuan.

Itsasgizonen artean, zeintzuk nabarmendu ziren gure bailaran? Izen propioak ematerik?

Merkataria izan ziren itsasoarekin harreman estua izan zutenak, zalantza barik. Horiek ziren, hain justu, gure enbaxadoreak mundu zabalean. Izen propio batzuk aipatzearren: Arrasaten, Okariz Santamaria; Bergaran, Perez Irabazal eta Gantxegi; eta Oñatin, lazarragatarrak eta Igarza.

Debagoiena kostalderik gabeko eskualdea izanik, nola da posible itsasoarekin horren lotura estua izatea?

Probintzia barruko eskualdea izan arren, itsasora begira bizi zen Debagoiena. Izan ere, itsasoa zen mundurako leiho irekia, merkataritzarako bidea. Debagoienekoa ez bada ere, adibide bat jarriko dizut probintzia barruko herri batek itsasoarekin nolako lotura zuen

ulertzeko: Altzola Elgoibarko auzo ezezagun bat da gaur egun, baina XVI. mendean Gipuzkoako merkataritza-gune garrantzitsuenetakoa zen, eta bertara bideratzen zituzten ekoiztutako materiala eta tresneria. Gero, Altzolatik Debara dauden hamabi kilometroak ibai-txalupaz egiten zituzten; oso abantaila errentagarria zen gero Debatik Pasaia, Sevillara edo beste nonbaitera abiatzeko. Gainera, Deba bailaran zegoen mugimendua gaur egungo kooperatiben antzerakoa zen: herrien eta merkatarien arteko elkartasuna, elkar laguntzea eta merkataritza konpainiak eratzea. Oso modernoak ziren garai hartarako; bazekiten guztien artean lan eginda sortzen zirela indarra eta babesa.

Argitaratu berri duzun liburuari dagokionez, zer aurkituko du irakurleak?

XVI. mendean dago kokatuta, garai hartakoak dira-eta historian atzera eginda aurkitu ahal



Ondoko irudian, itsasontzi bat Pasaia kaira heltzeko zailtasunekin, 1824an.



Kortsario ingelesaren eta frantsesaren arteko abordatzea, XIX. mendean.

diren dokumentuak eta bizimoduaren isla diren agiri fidagarrienak. Uste dugu gure itsasoaren eta haren historiaren inguruan dena dakigula, baina oraindik dena dago ikertzeko.

Artxiboetako agiriek argi esaten digute gure itsasgizonen historiak ezkutuan jarraitzen duela, eta hor mundu harrigarri bat ageri zaigu: itsaso beldurgarria, kortsarioen eta piraten mundua, Indiarako bidaiak, Ternuako arrantzaleen gorabeherak... Eta azkenik, itsas munduan gehien ezkutatu den emakumeen parte-hartzea.

Zergatik izenburu hori? Hau da, zergatik itsasoratu behar izan zuten euskaldunak?

Itsasorik gabe euskaldunak ez dira ezer izan, ez dago ulertzerik gure historia itsasoarekin izan ditugun harremanak aintzat hartu barik. Patuak edota desafio batek eraman ditu euskaldunak itsasora, lurrak ez zuelako nahikoa ematen bizi izateko. Hau da, biziraupenerako ezinbestekoa izan zen itsasoa. Esandako moduan, ez ziren itsasbaterreko herriak izan itsasoratu zirenak: Antzuola, Arrasate, Bergara, Elgeta, Oñati... denak bizi izan ziren itsasoko merkataritzari begira, barrualdeko ekoizpenek kanporako bideak har zituzten. Merkatarik euskaldun nagusiak itsasora begira zeuden, eta, askotan, itsasoan bertan bizi izan ziren.

Nolakoak ziren orduko arrantzaren berezitasunak? Zeintzuk dira gaur egungo arrantzarekiko ezberdintasun nagusiak?

Kantauri itsasoko arrantza arriskutsua zen, baina are arriskutsuagoa zen Irlanda aldera irtetea, eta, zer esanik ez, Ternuan egiten zena: bide luzea eta arriskuz bete, eta izugarrizko hotza jasan beharra. Gainera, itsasontzia izotzak harrapatuta geratzen zenean, ez aurrera eta ez atzera, arriskua are handiago bihurtzen zen. Heriotzaren arriskua oso presente zegoen.

Horrez gain, kortsarioak eta piratak ere bidean aurkitzen zituzten, handik ekarritako arrantza lapurtzeko asmo gaiztoz erasoak jasaten zituztenak. Gaur egungo arrantza, ordea, askoz errazagoa eta erosoagoa da. Hala ere, belaunaldi aldaketarik ez dago. Gazte gehienek lan errazagoak bilatzen dituzte, kostaldeko herrietan gertatzen ari dena begiratzea besterik ez dago.

Baserriarekin gertatzen ari dena ari al da gertatzen itsasoarekin?

Ondarroako portuan marinel gehienak beltzaranak dira. Hemengo gazteek ez dute itsas munduko konturik nahi. Gogorra da, oso gogorra. Eta, gauzak asko hobetu badira ere, arriskutsua ere bada oraindik. Errazera jo dute gazteek, bestelakoak dira euren lehentasunak. Aitona-amonen garaiko bizimodua bukatu da. Baserritik lantokira egin dugu eta gero baserrian ez da inor geratu. Eta itsasoarekin ere berdin, beste ogibide batzuk lehenesten dira. Itsasontziak ere, baserrien eta baserritarren antzera, desagertzen ari dira marinelekin batera.



Donostiako Ontzi Museoan aurkeztu zuen Azpiazuk *Y los vascos se echaron al mar* liburua.

Itsasoak nola tratatu du euskalduna?

Euskaldunenendako *ama* bat bezala izan da itsasoa. Bizi izateko, bizirik irauteko, aukerak eskaini dizkigu itsasoak. Bestalde, konparaketarekin nolabait jarraitzeko, *amaginarreba* bat bezala ere izan da. Hau da, gaitzak ere eragin dizkio itsasoak euskaldunari; hilketak, suntsiketak, galerak... Denetik egin dio itsasoak euskaldunari, bizitza eman eta kendu.

Itsasoan euskaldunak bizi izandako gertakizunen bat azpimarratuko zenuke?

Urruti joan gabe, XIX. mendean, dokumentu asko aurki daitezke *Protestas de mar* izena dutenak. Itsasoan zituzten arazoak ageri dira agiri horietan, larrialdi une garrantzitsuak. Makila nagusia bota behar izatea, itsasontzia galtzea edo itotzear egonda inguruko portu bateko itsasontzi batek salbatzea... Halakoak gertatu izan dira gure inguruan ere bai, Kantauri itsasoan bertan.

Arrantzaz aparte, zeintzuk izaten ziren itsasoko espedizioen helburu nagusiak?

Merkataritza, duda barik. Sevillara eta Europako hainbat herritara burdina, tresneria eta armak saltzen ziren. Artilea ere saltzen zen Europara, baina hor Burgosko merkataria ziren nagusi; euskaldunak garraiatzeaz arduratzen ziren, batez ere. Emigratu ere egiten zen, bereziki Indietara, hemengo estutasunak gainditu eta gosea saihesteko. Bizimodu hobe baten bila.

Aurtengo apirilean indargabetu zen azken 400 urteotan Islandiako mendebaldeko fiordoetan euskaldunak erailtzeko baimena ematen zuen lege bat. Nola uler daiteke hori?

Gai horren gainean laster kaleratuko dudan hurrengo liburuan mintzatuko naiz. Oso pasadizo interesgarriak aurki daitezke Islandia inguruko uretan –hemengo paperetan *Yslan* bezala agertzen da–. Martin Villafranca kapitainaren eta bere tripulazioko kideen erailketak zoritxarreko istripu itxura gehiago dauka mendeku zantzutik baino. Lege hori egin bazen ere, hurrengo bi mendeetan oso ona izan zen bi herrien arteko harremana. [Islandiarrek eta euskaldunak akordioa zuten baleak arrantzatzeke. Hala ere, 1615ean hiru euskal baleontzi heldu ziren Islandiara, eta haizete bortitz batek bi hondoratu zituen. Bertakoekin izandako liskarrak zirela-eta, sheriff batek euskaldunen hilketa agindu zuen; Martin Villafranca bera eta beste 31 marinel gipuzkoar erail zituzten. Gertaera hark eragin zuen lege berezi horren sorrera; hurrengo 400 urteetan harremana ona izan zen bi herrien artean.]

Liburuko bitxikeriarik aipatuko zenuke?

Itsasoari lotutako giroa oso serioa eta hotza da, hein handi baten; izan ere, elementu ezegonkor baten bizi ziren, itsasoaren indarraren menpe eta piraten bortizkeriaren beldur. ■

“ITSASOA LEIHO BAT IZAN DA EUSKALDUNAK MUNDURA IRTETEKO”

“BIZIRIK IRAUTEKO AUKERAK ESKAINI DIZKIGU, BAINA BIZITZA ERE KENDU DIGU”



Txalupak iraulita XIX. mendean, itsasoaren haserrealdien ondoren.

Etorkizuneko medikuntzarako lanabesak sortzen

ARGAZKIAK: GOIENA

OSASUNA



Gaizka Garai-Ibabe

MUko Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Biomedikoko Graduak irakaslea

Ingeniaritza biomedikoaren xedea ingeniartzaren eta medikuntzaren arteko hutsunea betetzea da. Alor berri honek ingeniartzako printzipio, ezagutza, jarrera eta gaitasunak osasun zientzia eta medikuntzako ezagutzekin konbinatzen ditu, medikuntzan aurrera egiteko; diagnosi, monitorizazio nahiz terapian. Beste modu batera esanda, ingeniari biomedikoek ingeniarien ezagutza teknikoak izateaz gain, medikuen hizkun-

tza ezagutzen dute, bien arteko elkarrekintzak sustatuz, osasun alorreko behar teknologikoei erantzuteko.

Ingeniari biomedikoen lanari dagokionez, osasun zientziatiko eta medikuntzako esparru teknologikoetan pertsonal kualifikatuak hutsuneak betetzen dituzte. Batez ere, osasunaren alor ezberdinetako ekipamendu, produktu eta teknologien diseinu, garapen eta ekoizpenean dihardute, ondoko taulan ikus daitekeen moduan.

Bestalde, ingeniari biomedikoaren jakintza-alorra zabal izanagatik, osasun sistemaren instalakuntzen eta ekipamenduen

BIOMEDIKUNTZAK OSASUN ALORREKO BEHAR TEKNOLOGIKOEI ERANTZUN GURA DIE

kudeaketan, administrazioan eta optimizazioan ere parte har dezakete.

GORAKA DOAN ARLOA Azken urteetan ikusi den medikuntza arloko enpresa teknologikoen ugartze eta sendotzeak agerian utzi du arlo honen garrantzia gaur egungo gizartean. Eta horren adierazle da azken urteetan ingeniari biomedikoak jasan duen hazkundea, berau izan baita ingeniartzaren artean hazkunde handienetakoa izan duen arloa. Gainera, nazioarte mailako aurreikuspenak betetzen badira, datozen urteetan izango den ingeniari biomedikoaren hedapena gainerako ingeniarietaz izango dutenaren gainetik egotea espero da. Horrela, 2012 eta 2022. urteetan artean ingeniari biomediko bezala jarduten duten profesionalen kopurua % 27 haziko dela estimatzen da.

Gure eremu geografikora etorrira, Eusko Jaurlaritzak ere biomedikuntza eta giza osasun arloak Euskadiko espezializazio adimentsuko lehentasun estrategikoko arlo bezala izendatu ditu.

JENDARTEARI EKARPENAK Nahiz eta ingeniari biomediko arlo berezi bezala berria izan, askotariko ekarpenak egin dizkio osasun munduari, hasi taupada markagailuarekin, insulina ponparekin jarraitu, eta *Da Vinci* robot kirurgikoraino iritsiz. Azken hau izan daiteke ekipamendu teknologikoaren aldetik ingeniari mundutik medikuntzara azken urteotan egin den ekarpen garrantzitsuenetakoa bat.

Da Vinci sistema kirurgikoa plataforma robotiko sofistikatu bat da, zirujauaren ahalmen eta trebetasunak sustatzeko disei-



Da Vinci robot kirurgikoak ahalbidetzen du ebakuntza egitea zirujaua eta gaixoa fisikoki leku berean egon barik.

natu eta ekoiztutakoa. Robot honek 2000. urtean jaso zuen AEBetako Elikagai eta Medikamendu Administrazioaren (FDA) oniritzia, eta kirurgia nagusi konplexuak, batez ere, kantzerekin erlazioaturikoak, inbasio txikienarekin egitea ahalbidetzen du.

Sistema honen bitartez egin dako ebakuntzek hainbat abantaila dituzte: orbain gutxiago uzten dituzte, odol gutxiago galzten denez, transfusio gutxiago behar izaten da, ospitalizazioak eta ohiko beharretara itzultzeko denborak laburtzen ditu.

Ebakuntza mota hori egiteko, gaixoari hainbat ebakidura txiki egiten zaizkio. Ebakidura txiki horiek ahalbidetzen dute robotak erabiltzen dituen miniaturazko tresnak eta 3Dko kamera sartzea. Ondoren, zirujauak robotaren laguntzarekin ebakuntza egiten du, robotak zirujauaren mugimenduak findu eta erreplikatzeko dituelako denbora errealean. Sistema horren beste abantaila bat da zirujaua eta gaixoa fisikoki toki berean ez egotea posible egiten duela, modu horretan munduko edozein lekutatik ebakuntza bat egitea ahalbidetuta.

Ikusi dugunez, ingeniari biomedikoak lan egiten du azken urteetan bizi bizan ditugun jauzi teknologikoen –Internet, teknologia berriak...– medikuntzan isla izan dezaten. Horien bitartez, gaixoen bizi kalitatea areagotuz, zerbitzuak hobetuz eta osasun sistema bere osotasunean jasangarriago eginez. ■

Arlo askotarako ekipamenduak

Tratamendu eta errehabilitazio ekipamenduak:

biomaterial berriak, protesiak, implanteak, beso robotikoak, organo artifizialak, desfibriladoreak...

Diagnostiko ekipamenduak:

- Irudi ekipamenduak: eskanerrak, ekografiak, erresonantzia magnetiko nuklearrak...
- Ekipamendu bioanalitikoak: biosentsoreak, *lab on a chip*, zero kostuko diagnostika...

Bizi kalitatea hobetzen duten ekipamenduak:

telemedikuntza, teleasistentzia, telemonitorizazioa...

-Kirol errendimendua hobetzeko ekipamenduak:

pultsometroak, monitorizazioa, material berriak...

Zer izango da hurrengoa?

TESTUA: ARANTZAZU EZKIBEL
ARGAZKIAK: ARITZ GORDO



Uriarte eta Gordo Anboton; bizikletarekin eta kamerarekin. Anboto bizikletarekin igo eta jaitsi zuen aretxabaletarrak.

Anboto (1.331 metro) bizikletan jaitea: hori izan da Markel Uriartek egin duen azken abentura; eta, egiteko horretan, Aritz Gordo argazkilaria eta laguna izan du alboan. Urte hasieran Udalatz jaitsi zuen Uriartek, eta abuztuan Aizkorri. Baina bi irteera haietan ez zuen argazkirik egin eta informazio grafiko barik geratu zen. Hala, Anboto “modu serioagoan” egitekotan geratu ziren Uriarte eta Gordo.

Aspaldi zuten buruan Anboto bizikletarekin jaitea, baina denboraldi amaierara itxaron dute gauzak lasaiago egiteko. “Gainera, baldintza onak behar genituen: eguraldi ona eta lurra siku egotea”, dio Uriartek. Azaroaren 1ean igo eta jaitsi zuten Anboto: goizeko bostetan hasi zuten abentura Debagoienean.



ALDAPA GOGORRAK Ibilbidea aurretik begiratu eta aztertu zuen galdetuta, Uriartek dio orain dela urtebete egon zela Anboton, baina ordutik ezin izan duela gehiagotan egon. Ibilbide “zaila” dela dio: “Udalatzen aldapa handiak daude, baina lurra uniforme da; Aizkorri ez dago horrenbeste aldapa, baina lurra irregularra da. Anbotok, berriz, bietatik du: aldapa handiak eta lur irregularra”.

Gordok istorio bat kontatu nahi zuela argi zuen: “Zerbait ezberdina egin nahi nuen: goizean goiz geratu ginen, modu horretan, gaua, egunsentia... argi ezberdinak harrapatzeko aukera izan genuen”.

ENKOADRAKETA ONA Urkiolan egin zituzten argazki batzuk, ermitaren ondoan, eta ondoren Anboto igotzen hasi ziren. Uriarte bizikletaren gainean, eta Gordo oinez edo korrika. “Nik enkoadraketa on bat ikusten nuenean handik joateko gomendatzen nion Uriarteri; hark egiteko modukoa zen edo ez esaten zidan”, dio. Hortaz, biok egin zuten ariketa fisikoa eta baita mentala ere. Gainera, Uriartek motxila batean edatekoa eta jana zera eman; motxila hori argazkietan ez agertzeko, aurrera joan, utzi, berriro hartu... horrela ibili zen Aretxabaletako kirolaria.

Aritz Gordok Nikon kamera batekin eta hiru lenterekin egin zuen lana. 14-24, 24-70 eta 70-200 lenteak. “Normalean, egiten ditudan lanen %75 lente horiekin egiten ditut”, dio argazkilariak. Uriartek, aldiz, enduroko bizikleta erabili zuen Anboto igo eta jaisteko. “Amortiguazio bikoitza duen bizikleta da, 160 milimetroko ibiltarte duena”, azaldu du.

Igotzeko orduan, ibilbidearen zati gehiena bizikletatik jaitsita egin zuela dio Uriartek. Jaitsi, aldiz, bizikletaren gainean egin zuen; hala ere, zenbait momentutan bizikletatik jaitsi beharra izan zuen: “Teknikoki bizikleta gainean jaisteko moduko ibilbidea da; baina lekuren baten amildegi handia dago, eta nahia- go nahi izan nuen bizikletatik jaitsi eta arriskuak ekidin”.

Nahiz eta kanpotik ikusita bestelakoa iruditu, beharrezkoak

“ZERBAIT EZBERDINA EGIN NAHI NUEN, ISTORIO BAT KONTATU”

ARITZ GORDO

“ANBOTOK ALDAPA GOGORRAK ETA LUR IRREGULARRA DITU”

MARKEL URIARTE

ez diren arriskuak ez ditu hartzen Uriartek: “Buruarekin jokatu behar da”. Horren harira, Gordok zera dio: “Uriarte lasaia da eta oso seguru dago egiten duenaz. Niri enkoadraketa begiratzeko eskatzen zidan, eta gero berak erabakitzen zuen egiteko gauza zen edo ez. Askok pentsatzen du egiten duena”.

MENDIZALEKIN ARGAZKIAK Goiz eder- rra pasa zutela diote. Eta, gai-

nera, anekdota kurioa ere badute. “Jende pila batek ezagutu gintuen. ‘Zu Markel zara? Eta zu Aritz?, esaten ziguten”, dio Gordok. “Harrituta geratu ginen zenbat jende ezagutzen gintuen ikusita. Argazki asko atera genituen”, dio Uriartek. Sare sozialen bitartez jendeak euren lana jarraitzen duela argi geratu zen Anboton.

Anboto bizikletarekin igo eta jaitea proiektu baten amaiera izan daitekeela pentsa daiteke. Eurek, baina, ez dute horrela ikusten. “Mendi zailenetakoa egingarria dela ikusteak zer pentsatua eman digu: ‘Zer gehiago egin daiteke? Nora irits gaitzke?’”, dio Gordok, eta gaineratu du: “Hau ez da amaiera, hau hasiera da”. Uriarte ere iritzi berekoa da; gainera, badu buruan erronka berria: “Pirinioetako mendi ezagunen bat egitea gus- taturik litzaidake”. ■

Sare sozialen abantailak eta desabantailak

ARGAZKIAK: GOIENA

ADITUEN ESANETAN



Joana Recagorri

Etxadi Familia Psikologia
Unibertsitate Zentroko psikologoa

Sare sozialek gure komunikatzeko, konektatzeko, ikasteko eta entretenitzeko modua aldatu dute. Sare sozialek balio dute interesak, informazioa eta zaletasunak partekatzeko; informazioa zabaldu eta eskuratzeko; iritziak eta ideiak emateko; zerbaitekin bat egiteko; elkartasuna adierazteko; modu informal batean ikasteko; komunikatzeko; eta lana bilatzeko.

Abantailak eta desabantailak izan ditzakete –ondoko taulan ikus daitekeen moduan–, baina esan beharra dago sare sozialen arriskuak tresna berean baino gehiago, erabiltzen dituen personarengan daudela. Pertsona bera da sarearen erabiltzaile izan edo sareko produktua bilakatzeko hautua egiten duena.

GAZTEAK KEZKA ITURRI Sare sozialei bereziki gazteek eskaintzen dieten denborak eta ematen dieten erabilpenak eragiten du kezka. Denbora luzeegia eskaintzen diote gazteek bizitza birtualari?

Denbora luzea eskaintzen dietela begi bistakoa da, gure



inguruko gazteria kontuan hartuz gero, baina denbora luzeegia eskaintzearen muga non dagoen jakitea ez da erraza.

Ematen duten denboran baino gehiago, gazteek egiten duten erabilera motan dago gakoa; erabilera egokia, errespetuzkoa eta arduratsua izatean datza gakoa, hain zuzen ere.

EMATEN DEN DENBORAN BAINO GEHIAGO, GAKOA ERABILERAN DAGO

ERABILERA EGOKIA Nola egin sare sozialen erabilera egokia? Alde batetik, garrantzitsua da seme-alabekin hitz egitea beraien burua babes dezaten: hitz egin pribatasunari eta intimitateari buruz –zein datu eman ditzaketen, zeintzuk ez; ze argazki parteka dezaketen...–, zergatik saihestu behar duten argazki edo bideoak erabiltzaile ezagunei bidaltzea, eta abar. Hau da, beraien ekinzketen duten eragina eta ondorioa azaldu behar zaie –moralak, legalak...–, norberaren esperientzietatik abiatuz, egunerokoan gertatzen diren adibideez baliatuz zein ezagun edo ingurukoren baten kasua azalduz.

tuz zein ezagun edo ingurukoren baten kasua azalduz.

Beste alde batetik, enpatia lantzea ere garrantzitsua da: seme-alabei bestearen lekuan jartzen eta desberdina dena errespetatzen irakatsi behar zaie eta beste ikuspuntu batzuk agertu, beraien perspektiba zabaltzeko asmoz. Sare sozialean ez dago egindako minaren berehalako edo zuzeneko pertzepziorik, eta enpatia garatzeko zailtasunak daude.

Horrez guztiaz gain, ezinbestekoa iruditzen zaigu familian sare sozialekiko ikuspegi eta

jarrera positiboa izatea, seme-alabek erabiltzen dituzten sare sozialei buruzko informazioa izatea, etxean ordenagailua gurtion den espazio batean jartzea, guraso kontrola deritzona aktibatzea eta Internet erabiltzeko ordutegia jartzea; baita web kamerarekiko erabilera egokia sustatzea ere. ■

Gure adituendako galderak dituzula? Bidali zure zalantza, eta argitzen ahaleginduko gara.
mbelastegi@goiena.eus

Sare sozialei bereziki gazteek eskaintzen dieten denbora eta ematen dieten erabilerak eragiten du kezka.

Alde eta kontra

Sare sozialek abantailak eta desabantailak dituzte, baina arriskuak, tresnan baino gehiago, erabiltzearengan daude.

DESABANTAILAK

- Ezezagunak diren kontaktua erraztasunez atxikitzea.
- Lagunen lagunak atxikitzea.
- Argitaratutakoak zabalpen azkarra eta hedatua du –adibidez, argazkiek–.
- Sare sozialen erabilera mendekotasun-sortzaile bihurtzea eta pertsona emozionalki eta fisikoki isolatzea.
- Eraso biktima izatea –ziberbullying-a, grooming-a, sexting-a, sextorsion-a...–.

ABANTAILAK

- Familia barneko komunikazioa mantentzen laguntzen dute –adibidez, Whatsappen familia taldeak izatea eta seme-alaba nerabeekin komunikazioa errazten dute–.
- Informazioaren azkartasuna.
- Zaletasun eta interes berak dituzten pertsonak ezagutzea.
- Gizartearen aldeko ekintzak sustatzen dituzte.
- Errazten dute txikitako lagunekin kontaktua berreskuratzea.
- Ezagutza emateko tresna gisa balio dute –enpresa, langile zein pertsona bezala–.
- Sormena sustatzen dute.

Okela goxoak Hilarionen udazkenerako eta negurako

ARGAZKIAK: JON MORENO ETA AMAIA TXINTXURRETA

OTORDUAN



Gabino Yarza

Hilarioneko sukaldeburua
hilarion-arrasate@hotmail.com

Urtaroen arabera, garaikoak izaten diren osagaiekin prestatzen ditugu platerak Arrasateko Hilarion jatetxean, eta udazkenari eta neguari begira, esaterako, haragien eskaintza zabala daukagu. Ondorengo orrian dagoen buztan erregosia, Galiziako idi-masaila, arkumea, txerri iberiko idi-masaila, antxumea... Plater horiek eta gehiago izaten ditugu kartan, bezeroek gustukoena aukera dezaten.

Gabonetarako proposa

Hauxe da aukeratu dudan platera: buztan erregosia saltsan Paris patatekin. Udazkenerako eta negurako proposa da, eta kartan eskaintzen dugu. Prestatzeko ez da oso zaila eta Gabonetarako etxean jartzeko modukoa da. Haragi mota hau, gainera, prestatu eta izozkailuan izan daiteke bospasei egunean; beraz, mahaira atera nahi denean, poliki-poliki berotzen jartzearekin nahikoa izaten da. Beraz, ez dago momentuan platera hasieratik bukaerara prestatzen ibili beharrik, eta hori ondo etortzen da horrelako egunetarako.

Alergiaren bat dutenendako menu bereziak ere prestatzen bagabiltza. Hala, zeliakoek, esaterako, laster izango dute gurean lasai asko jateko moduko aukera zabala kartan. Orain ari gara moldaketak egiten eskaintza horiendako.

Etxera eramateko janaria ere prestatuko dugu laster. Horrek esan nahi du bezeroek etxean edota edozein elkarte gastronomikotan jan ahal izango dutela guk Hilarionen prestatutako janaria.

Webgune berria martxan jartzeko bidean ere bagaude. Hauxe izango da helbidea: www.restaurantehilarion.com. Gure eskaintzari buruzko informazioa bertan izango da laster. ■



Arrasateko Larrea plazan dagoen Hilarion jatetxeko janlekua, bezeroak hartzeko prestatuta.

Hilarionen prestatutako buztan erregosia saltsan Paris patatekin.



Buztan erregosia saltsan Paris patatekin

Osagaiak (4 lagunendako)

Buztana zatituta, 2 kilo
Tipula gorria, 750 g
Azenarioa, 500 g
Porruak, 2
Txokolate-ontza bat (%80 baino gehiagoko kakaoa duena)
Gatza
Patatak, 2 handi
Oliba-olioa
Ardo beltza, edalontzi bat
Ura

Prestaketa

1. Zatitutako buztanari bota gatz pixka bat eta irineztatu.
2. Zartagin batean jarri olioia, eta beroa dagoenean gehitu buztana. Doratu bi aldeetatik.
3. Beste su batean, jarri presio-eltze bat litro erdi urekin. Buztan zatiak frijitzen doazen heinean, zartaginetik pasa presio-eltzera. Buztan zati guztiak bertan daudenean gehitu ura goraino, bota ardoa eta berotzen jarri.
4. Buztana frijitutako zartagin berean, olio berarekin, gehitu ondorengo osagaiak, hurrenez hurren: tipula juliana eran moztuta, porruak, eta geroago azenarioa. Baita txokolatea ere. Ukitu iluna hartu arte utzi, baina ez dadila erre.
5. Zartagineko osagaiak pasa presio-eltzera, baina olioia utzi zartaginean.
6. Gatz pixka bat bota horri eta irakiten utzi ordu eta erdiz, maila erdian.
7. Buztan zatiak atera, eta saltsa xehatu eta txinotik pasa.
8. Patatak zuritu eta torneatu. Irakiten jarri uretan, gatz pixka bat botata.
9. Platerean jarri buztan zatiak, gehitu ginetik saltsa eta ondoan jarri patatak.

Denbora: 100 minutu.

Zailtasuna: ★★☆☆

HILARION JATETXEARI ESKER IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE:

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eu 📞 KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Aurreko zozketako irabazlea: Mikel Lopez de Arkaute Guridi (Arrasate).

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eu

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Jantzi katiuskak euriari aurre egiteko

TESTUA: MAIDER ARREGI ARGAZKIAK: GOIENA

Batzuei ohitzea kostatu egin bazaie ere, katiuskak udazkeneko eta neguko paisaiaren parte bilakatu dira. Egun euritsuei aurre egiteko aukera aparta izateaz gain, modako ezinbesteko osagarriak dira. Izan ere, tendentziak jarraitzen dituzten artean, nork ez ditu katiuskak? Eroso eta modara joan daitezkeela katiuskek eta askotariko *outfit*-ak egitea posible dela esan du Ainhoa Garitanok, Jo'ka-ko moda aholkulari bergararrak. "Orain dela hiru urte ekarri genituen lehenengoz Hunter botak. Hotzak izan arren, gurean hezetasuna behin ondo sartzen denean inork ez ditu nahi oinak bustita edukitzea". Euritarako botek asko eboluzionatu dute eta merkatuan nahi adina kolore eta tamainak daude. "Luzeak, ertainak eta motzak ditugu. Edozein neurri oso ondo saltzen da. Beltza erosten duena gero kolorezkoa erostera animatzen da. Edozeekin jantz daitezke".

GERRA GARAIA Kaleetan ikusten diren gomazko edo kautxuzko bota horiek, berez, arrantzarako eta nekazaritzarako sortuak dira. Wellingtongo dukeak XVIII. mendean bere zapatariari eska-

"EURITARAKO BOTEK GAUR EGUN ASKO EBOLUZIONATU DUTE"

AINHOA GARITANO



Gonarekin edo soinekoarekin jantz daitezke euritarako botak. Askotariko *look*-ak sor daitezke, gainera.

Hunter etxearen lehen kolorea berde iluna izan bazen ere, gaur egun edonoren gustuko kolore eta modeloak ditu.

tu zion egiteko. Hasiera batean, larruzkoak ziren; gerora etorri ziren gomazkoak, Charles Godd-yearrek kautxua asmatu zuenean. Zabalkundea, baina, I. Mundu Gerran izan zuten euritarako botek. Izan ere, milioi bat katiuska egin zituen North British Rubber enpresak –orain Hunter Boot Ltd.– lubaki umeletan zeuden soldaduendako. Eta, pixkana-pixkana, botak industria langileen artean ere zabaldu ziren, erosoak zirelako eta hezetasuna saihesten zutelako (1955). Baina 2005ean iritsi zen moda munduko benetako *boom*-a Kate Moss efektuari esker. ■



Kate Moss eta Alexan Chung.

'British'-a eta 'chic'-a

Kate Mossen irudi horrek (ezkerrekoak) musika jaialdiatar joateko moda goitik behera irauli zuen. Nork esango zuen uretako katiuska batzuekin *chic* ukitua lortzeko bidea zegoenik? Kate Mossek 2005ean Glastonbouryko jaialdian moda kritiko guztiak aho bete hartz utzi zituen. Tendentzia sortzailea da Moss eta oraindik ere haren tendenzien jarraitzaileak dira *celebrity* ospetsuak eta kaleko jende arrunta. Ospetsuen artean Alexa Chung modeloa dago, Mossen jarraitzailea eta haren ondorengo gisa batailatuta dagoeneko. Biek ala biek ukitzen duten dena urre bilakatzen dute modaren munduan. Edo, hobeto esanda, jantzen dutena agortu egiten da saltokietan minutu gutxi batzuetan.



Amaia Albes
Diseinatzailea
info@amaialbes.com

Definizioak ahaztu eta arteaz gozatu

Batzuek moda arte-diziplina bat ez dela defendatzen duten bitartean, beste batzuei diseinuaren eta artearen arteko muga aurkitzea korapilatsua gertatzen zaigu. Arte-kontzeptua sormenetik loratutako jardura dela aintzat hartzen badugu, aise ulertuko dugu jostintza ere artea dela. Gizartearen eta bere kulturaren isla izan nahian munduaren ikuspegi bat adierazten duen baliabidea da, zein helburu estetiko eta komunikatiboekin formak eta zirrarak lotzen dituen. Moda erakusketa batek ere lilura zaitzake; manikia eskultura izango balitz begira ezazu, arretra jarri patrioiaren konplexutasunean, ulertu mozketak, oihal eta koloreei erreparatu eta osagarriekin diberti zaitez. Azaroan Tabakalera museoan parte hartuko duan moda erakusketara gonbidatzen zaitut; gerturatu eta goza ezazu!

Lehiatzeko gogo handiagoarekin

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: JOSU BILBAO ETA ANDER ZELAIA

Asier Unzetabarrenetxea elgetarra lehiaketetara itzuli da aurten, eta denboraldia oso gustura amaitu du. Iaz ez zuen lasterketarik egin, ezkondu egin zelako: “2014an ez nuen lasterketarik egin, ezkondu egin nintzen eta. Orduan autoa geldi izan nuen, etxean errietarik ez hartzeko. [Barre] 2015ean emazteak, gurasoek, lagunak eta babesleak asko lagundu eta animatu naute lehiaketetara bueltatzeko. Eurei esker animatu naiz, eta denboraldirik onena burutu dut. Esperientzia handia hartu dut eta oso gustura gelditu naiz. Gorlako Igoera, Udanakoa eta San Migeleko eta Aramaioko rallysprintak egin ditut. Autoak ere oso ondo erantzun du, gainera”.

BABESLEEN GARRANTZIA Autoekin lotutako kirolak ez dira merkeak, eta Unzetabarrenetxeak babesleak ezinbestekoak direla gogorarazi du: “Babesleen laguntza ezinbestekoa da kirol honetan. Horiei esker, lasterketa batzuk nahiko pozik bukatu ditut eta ez dut poltsikoa hainbeste zulatu. Oso garrantzitsuak dira, diru asko doalako kirol honetan. Hala ere, dirua baino gehiago, gogo behar da. Non eta noiz gastatu jakitea ezinbestekoa da. Buruarekin jokatu behar da. Gero, lasterketa batean kolpe bat har dezakezu eta planak bertan behera gelditzen dira, baina...”.

Autoek zale asko mugitzen dituzte Euskal Herrian, eta, elge-

tarraren ustez, erakusleihen apartak dira: “Ez da erraza babesleak aurkitzea. Zeini eskatu jakin behar da. Nire kasuan, babesleak etorri egin zaizkit aurten gogoz ibili naizela ikusi dutelako, eta lagunak ere badirelako. Asko eskertzen da. Auto asko babesleengatik ezagutzen dituzte zaleek. Jendeak, bihurguneetan batez ere, autoaren atea ikusten ditu, eta babeslearen izenarekin erlazionatzen dituzte autoak”.

BIZKAIKO BALKOIA RALLYA Elgetatik pasatzen da rally ikusgarri hori, nahiz eta aurten ez den herritik bertatik pasatu. Unzetabarrenetxearen ametsetako bat Bizkaiko Balkoia Rallya bukatzea izango litzateke. “Nire ametsa, orain, Bizkaiko Balkoi Rallya edo Lea-Artibai Rallya hasi eta bukatzea izango litzateke. Nik ez dut nahi Kantabriara edo urrutira joan lehiatzera. Hemengo probak nahiago ditut. Elgetan, Bizkaiko Balkoia proban, jendea animatzen, gurasoak, amama... Etxean jendeak animatu egiten zaitu, eta hori itzela da”, dio pilotuak.

DATORREN DENBORALDIA Asier Unzetabarrenetxeak proba gehiago egingo ditu datorren denboraldian, eta alboko eserlekuan bidaiari berri bat ere izango du. “Datorren urtean anai txikia nire kopilotu izatea gustatuko litzaidake. Ez da ni bezain zale amorratua, baina nik etortzeko eskatu diot. Nire ondoan joateko beldurrik ez du, eta hori da



“BABESLEEN LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA KIROL HONETAN”

ASIER UNZETABARRENETXEA



San Migeleko Rallysprintean, Elgetako jaietako zapia autoaren atzealdean zuela parte hartu zuen.

Argazki nagusian, Elgetako pilotu gaztea bere BMW autoarekin, Udalatx atzean duela, Asentzion.

garrantzitsuena. Laguntzera etortzen da beti, gainera. Izan ere, lasterketa gehiago egiteko asmoa dut. Jendeak laguntzen badit eta jendea ikustera etortzen bada, zoragarri”, dio elgetarrak.

Autoa puntuan jartzeko eta prestatzen joateko Miranda de Ebroko zirkuituan egingo ditu saioak: “Orain, autoa konpontzen nabil eta pixkanaka zirkuitura joango naiz, Miranda de Ebro, hobekuntzak egiteko asmoarekin. Bertan, autoa puntuan jartzeaz gain, eskuak hartzen dituzu. Urte osoan ez bazara ibiltzen,

azkenean, ohiturak galdu egiten dira. Mirandako zirkuitua 4 orduko 600 euro dira, gutxi gorabehera. Horregatik, 10 lagun inguru batzen gara eta bakoitzak 50 euro ordaintzen ditu. Autoa probatu, eta gurpilak erre egiten dira, azken finean”.

IKUSKIZUNA VS ABIADURA Bihurguneetan ikuskizuna ematera doazen pilotuak daude, eta, beste aldetik, denborei begira ibiltzen direnak. Unzetabarrenetxeak uste du bien arteko oreka bilatu behar dela: “Ez naiz joaten bihur-

guneetan ikuskizuna ematera. Irteten denean irten egiten da. Azkenean, denborak egitera joan behar da, bizkor, eta ezin da tontoarena egin probetan. Lehiaketa hau ez da zeinek egiten dituen tronpo gehien, baizik eta hasi eta bukatu zeinek egiten duen denbora laburrenean. Federaziotik zorrotz ibili dira aurten, eta batzuei lizentzia kendu diete tontakeriatan ibiltzeagatik. Gauza bat da bihurguneetan eskuko freno nahita botatzea bizkorrago irteteko, baina bihurgunea hasi aurretik botatzea...”.

Juan Antonio Untzurruntzaga

TESTUA: MIREIA BIKUÑA ETA MAITE TXINTXURRETA ARGAZKIAK: J.A. UNTZURRUNTZAGA ETA M. TXINTXURRETA

Juan Antonio Untzurruntzaga oñatiarrak ia bizitza osoa darama argazkilaritza lantzen. Gogoan du bere lehen argazki-makina txokolate marka batek oparitutakoa zela, 15 bat urte zituenean lortu zuen. Ondoren, 20 bat urte zituela, Bergarara joan zen bizi izatera, eta Pol-Pol argazkilaritza taldean hasi zenetik horretan murgilduta dago. Esklerosi anizkoitza duen arren, ez du bere zaletasuna alde batera lagatzeko asmorik.

Irailean Oñatin jarri zenuen erakusketa, eta urrian Bergaran. Nola joan dira?

Oñatin ondo, eta Bergaran oso ondo. Izan ere, azken horrek zeukan berezitasuna zen herriko hainbat pertsonairen erretratuak ere bazirela, eta hori, gazteleraz esaten den moduan, *puntazoa* izan da.

Baina erakutsitako lan guztiak ez dira erretratuak. Zein ezaugarri ditu zure argazkilaritzak?

Denetik egiten dut. Egia esan, paisaiak baditut, baina nahiko gutxi, ez naiz paisajista. Erretratu asko egiten ditut, eta, erretratu ez bada ere, beti saiatzen naiz pertsonak ager daitezen. Bestela, nire ustez, hutsik dago argazkia.

Txikitatik izan duzu mundu honekiko zaletasuna?

Bai; 12 edo 13 urterekin hasi nintzen, Loiola txokolateen estalkiarekin oparitzen zuten kamera txiki batekin. Bergarara etortzean hasi nintzen argazkiak maizago ateratzen. Pol-Pol argazkizale taldeko bazkidea egin nintzen irailean, eta urte bereko azaroan presidenteak esan zidan ni zuzendaritza taldean sartzea nahi zuela,

bozeramaile moduan. Eta ordutik, gaur egunera arte.

Analogikotik digitalerako saltoa garrantzitsua izan da argazkilaritzarendako. Zuk zer nahiago duzu?

Orain, digitala. Analogikoa politagoa da lan egiteko, baina laborategian ibili behar da, eta horrek lan handia dauka; garestiagoa da, gainera.

Digitalarekin abantaila da ordenagailuan elementuak kendu edo ipin daitezkeela. Analogikoan ere egin daiteke, baina askoz ere nekezagoa da. **Zenbat argazki-kamera dituzu etxean?**



Izan ditudan guztiak gordetzen ditut. Bat, esaterako, altuera handi batetik erori eta apurtu egin zen, baina zatiak oraindik poltsa batean gordeta ditut. Guztira, hamaika edo hamabi makina izango ditut.

Eta zenbat argazki?

Asko. Kamera digitalarekin ateratakoak bakarrik, 2009tik hona, 100.000-edo izango dira.

Nora joatea gustatuko litzaizuke argazkiak egitera?

Indiara. Ez naiz inoiz izan, eta ja ezingo naiz joan. Diotenez, kolore eta argi asko dauka. New Yorkera ere bai, hori izango litzateke niretzat tokirik politena. Indiarekiko desberdina da, urbanoa. Gai urbanoa oso gogoko dut. Ea noizbait joaterik dudana. ■



Erretratuak dira argazkilari oñatiarraren espezialitate nagusia. Argazki honetan, B.B. King.



Bergarako Agustin Arantxabal. Gaztelu aita-seme futbolariak.

On Nicomedes apaiza konfesatokian, Bergarako pertsonaiak bildumako lana.



Lisboan ateratako argazkia.

Ordenagailu programekin ere moldatzen ditu bere lanak Untzurruntzagak.

45 urteotako oinatzak, aurrera egiteko indarra

TESTUA: MIRARI ALTUBE ARGAZKIAK: OÑATZ DANTZA TALDEA

Oñatz esan eta *Txutxin* burura etortzea bat dira Oñatin. Izan ere, dantza taldearen 45 urteko ibilbidearen pausoak harekin batera eman ditu banan-banan Jesus Irizarrek, presidenteak: “Zubillagako Izarrak neska taldearekin hasi nintzen. Oñatz kultura-aisialdirako elkarteko kideek dantzen saila sortzeko eskatu zidaten gero, eta Zubillagakoekin batera 1970ean hasi ginen Oñatzen”. Hain zuzen, urte hartan antolatu zuten lehenengo Haurren Eguna eta Izarrak taldeko neskek Oñatiko arku-dantza egin zuten dantzan Irizar kapitaina zela.

60 bat lagun elkartu ziren orduan, familia giroan, eta frankismoari aurre eginez ilusioa zen ardatza: “Izugarrizko ilusioa genuen. Dena debekatuta zegoenez, derrigorrez atera gura genuen aurrera, eta gurasoek eta herriarrek bultzatzen ziguten atzetik. Ikurrina atera gura zen ezin zenean; dantzarako jantziak hiru koloreekin egiten genituen...”. Kultura-aisialdirako elkarte handik laster desagertu egin zen, eta Oñatz izena dantza taldeak hartu zuen.

1970 AURREKO DANTZARIAK Oñatiarrik, baina, ez ziren hasi dantzan Oñatzekin. “Udaletxean badago 1560ko agiri bat eta dio dantzari batzuek Corpusetan dantzan egin zutela; antza, ordutik aurrera urtero egin zutela”, dio Iñigo Murgiondok, Oñatzeko kideak. Udal dantzariak ziren eta kapi-



tainaren lana zen Corpus jaietan Oñatiko dantzak egitea eta erakustaldien kalitatea bermatzea.

Udal dantzariak gain, beste bost talde ere izan ziren XX. mendean, Oñatin. II. Errepublikaren bueltan, poxpolinen eta ezpata-dantzarien taldeak sortu zituen batzokiak eta 1936a arte iraun zuten horiek, gerra hasi arte. Francoren garaian ere izan zen taldetxo bat: “Seccion Femenina emakumeen mugimenduko kideak ziren eta Oñatiko dantzak egiten zituzten haiek. Franco-rekin batera desagertu ziren”. 1950eko hamarkadan beste taldetxo baten berri dago: “Gabon egunean talde bat dantzan egitera ateratzen zen, jaiotza aldean hartuta”. Eta 70eko hamarkadan

“1560AN DANTZAN EGIN ZUTEN AGIRI BAT DAGO UDALETXEAN”

IÑIGO MURGIIONDO DANTZARIA

“1995EKO DANTZARI EGUNA APARTEKO OSPAKIZUNA IZAN ZEN”

JESUS IRIZAR ‘TXUTXIN’ PRESIDENTEA

“OINKARI TALDEAK GONBIDATUTA JOAN GINEN IDAHORA”

MAITE IRIZAR TALDEKO KIDEA



Araotz auzoan ere izan ziren dantzariak: “Donostiako apaizgaireren bat etortzen zen hona uda pasatzera eta umeei erakusten zieten. Bitartean, Zubillagan, Izarrak taldea zegoen”, dio. Hain zuzen, Murgiondok *Oñatiko dantzaren historixia* lantxo egin du, eta han jaso ditu kontuok.

1995EKO HAURREN EGUNA Oñatzen ibilbidean hainbat data eta ekitaldi daude esanguratsuak, eta horietako bat da 1995a. 25 urte bete zituen urte hartan, eta Euskal Herriko Dantzari Eguna egin zuten Oñatin. “Ehunka talde elkartu ziren eta aparteko ospakizuna izan zen. Ordura arte sekula ez zela egin halakorik esan ziguten dantzari batzuek”,

jakinarazi du Irizarrek. Eta Murgiondok gaineratu du: “Erdi ahaztuta dago ospakizun hura, baina izugarria izan zen. Ibarrako futbol zelaia zena bete egin zen, baita inguruko zelaia ere”.

BOISERA IRTEERA 45 urteotan ekitaldi mordoa egin dituzte Debagoienean, Euskal Herrian eta nazioartean ere bai: Kroazian, Polonian, Suitzan... 2007an Ameriketako Estatu Batuetara joan ziren eta bidaiaria hura askoren gogoan dago. “Idahoko Oinkari taldearekin harreman estua izan dugu urtetan, eta hark gonbidatuta joan ginen”, dio Oñatzeko kide Maite Irizarrek. Eta Murgiondok gaineratu du: “Sekulakoa izan zen. Apurtuta iritsi

Ezkerreko orrian: arku-dantza, 1970ean, Oñatiko lehenengo Haurren Egunean. Goian: neskak, 1994an, Antzuolan.

Azpian: 2012ko Corpusetan, kalean dantzan; eta eskuman, Iribas dantza egiten Oñatiko plazan.



ginen 24 orduko bidaiaren ostean, eta, filmetan lez, pankartekin eta puxikekin zegoen jendea gure zain aireportuan. Ikaragarria”. Harrera ezin hobea egin zitelako gogoan Irizarrek ere: “Euskal komunitatea dago han, diasporako jendea, eta guk eramandako horretatik dena zurrupatu gura izan zuten”.

OSASUN ONA 1970ean elkartutako familia hura haziz joan da. Eta egun, inoiz baino osasuntsuago dago. 5 eta 16 urte bitarteko 300 neska-mutiko baino gehiago dabil-tza orain, eta helduen taldean 65 bat lagun. Atzera begiratu eta ospatu egin gura dute egunotan; eta aurrera begiratu eta lanean jarraitu datozen urteotan. ■



Iñaki Agiriano
Eskoriatzako liburutegikoa



INDIGNACIÓN

Egilea: Philip Roth
Argitaratzailea: Mondadori
2009 / 165 orrialde
Generoa: Narratiba

Erabaki hutsalak erabakigarri

Helburu bakarra du: ikastea eta ikastea Koreako gerran ez bukatzeko

Badira urte batzuk bailarako bibliotekak Neguko Gida ateratzen ari garela. Aurtengoa ere bidean da, eta azken hilabetean nobedadeak irakurtzen ari naiz. Libururik ederrenak haurrentzako esparruan ezagutu ditut, eta asko gustatu zaidan bat Susanna Isernek idatzi eta Betania Zacariasek ilustratutako ipuina izan da: *Hartzatxo, jirafa zaharra eta harrizko pareta*. 5, 6, 7 urteko haurra baduzu, irakurle, liburu ederra oparitzeko.

Helduendako erositako berrien artean, berriz, *El caso Eden Bellwether* (B. Wood, Duomo) irakurri dut. *A priori*, hainbat sari irabazita heldu zaigulako, liburu segurua zen gidarako, eta, egoera aprobetxatuz, baita PUNTUA aldizkarirako ere. Baina gustura irakurri dudana arren, aitortu behar dut irakurketa bukatzean iruditu zaidala idazleak istorioa ez duela naturaltasunez garatu, gertaeren bilakaera behartu izan balu bezala. Dena dela, oso kritika onak ditu.

Agian, gaur gomendatu gure dizuedan liburua, *Indignación*,

irakurri berri izango ez banu, beste iritzi bat izango nuen B. Wooden liburu horren inguruan. Baina, nobedadea ez izan arren, *Indignación* gogoz eta disfrutatuz irakurri dut.

Philp Royhi egindako elkarrizketa batean zioen: “Nire hasierak azkarrak dira, gakoa atentzioa lortzea da, sakontasuna bilatzeko”. Eta horrela da eleberrri honetan ere. Lehen bost lerroetan zuzenean jarriko zaitu istorioaren barruan. Ameriketako Estatu Batuak Korearen aurka gerran dira eta Marcus Messner, ikasle judu azkarra, gurasoekin bizi da. Baina bere aitarekin duen harremana itogarria denez, bere etxetik urrun joango da ikastera, Ohioko Winesburg unibertsitatera. Bere buruan helburu bakarra du: ikastea eta ikastea Koreako gerran ez bukatzeko. Baina Marcusek hartzen duen erabaki bakoitzak gero eta gehiago gerturatuko du Koreako gerrara. Kontrolatu ezingo dituen indarren biktima da, baina ez garaiko gertaera handien biktima, bizitzan egunero gertatzen diren tolerantziarik ezaren, itxurakeriaren eta faltsukeriaren biktima. ■



Arrate Agirre Urriko zozketako sari nagusiaren irabazlea

“Goienatik jasotzen dudana hirugarren saria da hau”

TESTUA: AMAIA TXINTXURRETA ARGAZKIA: GOIENA

Arrate Agirre arrasatearrak irabazi du Goienak Klubeko bazkideen artean egin duten urriko zozketako sari nagusia: inprimagailua.

Pozik jaso duzu saria?

Bai, oso-oso pozik. Ez da Goienatik saria jasotzen dudana lehenengo aldia, hirugarren saria

da hau. Aurretik beste zozketa batzuetan ere parte hartu izan dut; behin, liburu bat tokatu zitzaidan, eta, beste baten, Arrikutzeko kobak ikustera joateko sarrerak ere tokatu zitzaizkidan. Noizean behin, interesatzen zaizkidan sarien zozketan parte hartzen dut

Whatsapp bitartez, oso eroso da. Gustura erabiliko dugu seme-alabekin batera inprimagailua.

Zergatik egin zinen klubeko bazkide?

Orain dela urte asko egin nintzen, batez ere, bi helbururengatik: batetik, informazioa jasotzeko; eta bestetik, dauzkadan konpromiso sozialen artean, gustatzen zaidalako ahal dudana neurrian euskarazko herriko hedabidea bultzatzea.

Bazkide txartela erabiltzeko ohiturarik badaukazu?

Ez daukat ohitura handirik, baina Gabonetan urtero erabiltzen dut, Txikilandiarako. ■



GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.

Puntua: Egubakoitzetan etxean jasoko duzu.

Deskontuak: Goienan jartzen dituzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 55 €. Azaroan bazkideguz gero: 10 €.

943 25 05 05 | kluba@goiena.eus | blogak.goiena.eus/goienakluba

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Oñatiko 'txokolatera'

1923tik 1967ra trenbidea egon zen Oñatin eta horren adierazle da unibertitate aurrean dagoen lurrin-makina

TESTUA ETA ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA

Oñatiko postetxea dagoen eraikina garai baten herriko tren geltoki nagusia izan zela dio alboan duen lurrin-makinak. 1921ean La Maquinista Terrestre Y Marítima enpresak Bartzelonan egindako makina da. Oñatiarrek *txokolatera* moduan ezagutzen dute. "Lurrin-makinak eta txokolata egiteko makinak zuten antzarenatik izango da izenarena. Botatzen zuen kearenatik edo", esan du Jerardo Elortzak.

HAMAİKAGARRENA Vasco-Navarro trenbidetik 18 lurrin-lokomotor pasatu ziren eta Oñatin dagoena hamaikagarren zenbakiduna da. 10.000 kilo pisatzen du, 9,64 metro luze da eta 2,40 metro zabal. 193.750 pezeta balio izan zuen eta Tender modelokoa zen.

Tender modelokoa da eta 10.000 kilo pisatzen du lurrin-makinak

Erdiko hiru ardatzak bat eginda zituen eta albokoak aske.

Hasierako urteetan lurrin-makina hori erabili zuten, eta, 1938ko otsailaren 20an argindar-makinak erabiltzen hasi zirenean, baztertu egin zuten. "Oñatiko eta inguruetako beste tramu batzuetan erabilitako makinak Zornotza eta Bermeo arteko trenbide zatira eramane zituzten. Argindarra heltzearekin batera,

lurrunezkoak baztertu egin ziren", dio Elortzak.

1970ko hamarkadaren hasieran, orduko Oñatiko alkate Reyes Korkostegik jakin zuen hamaikagarren lurrin-makina baztertua zegoela, eta herrira eramatea erabaki zuen. Tren geltoki nagusia izan zen eraikinaren ondoan ipini zuen, oroigarri gisa.

Trenak eragin zuzena izan zuen Oñatiko ekonomiaren hazkuntzan. Alde batetik, lanpostu asko sortu zituen: geltokiko arduraduna, txartelen saltzailea, trenbideko orratzak aldatzen zituen, makinaren gidaria... "Hainbat oñatiarrek lan egin zuten trenbidean, baina Nafarroatik lagun asko etorri zen gurera. Izan ere, Gasteiztik Lizarrara beste adar bat zuen trenbideak eta inguru haietatik langile asko etorri zen. Hortik dator kio

Vasco-Navarro izena trenbideari", gogora ekarri du Elortzak.

Beste alde batetik, 1920ko hamarkadaren aurretik herriko ekonomiak izan zuen beherakadak igoera nabarmena izan zuen trenbideari esker. "Hijos de Juan de Garay, Tximist, Altuna, eta Mugarza, Ugarte Y Compañía fundizioa garai hartakoak dira. Euren hazkundean eragin zuzena izan zuen trenak. Izan ere, garraiorako ibilgailu baka-



rra zen. Oso kamioi gutxi zegoen orduan, eta trena oso garrantzitsua zen enpresendako eta bidaiariendako", esan du.

ERREGINA INAUGURAZIOAN Elorregi-Oñati linea Gasteiztik Mekolaldera zihuan linearen adarretako bat zen. Trenbide osoak 58,094 kilometro zituen eta Oñatirako adarrak 6,72 kilometro.

Adar hori eraikitzeke lanak 1920ko urriaren 12an hasi zituz-

ten eta 1923ko irailaren 30ean inauguratu zuten. "Alfontso XIII.aren emazte Maria Victoria erregina egon zen inaugurazio ekitaldian. Erregea ez zen Oñatin egon, egun batzuk lehenago Primo de Riverak ezarritako diktadurarekin nahiko lan zuelako", gogora ekarri du Elortzak.

Elorregitik Oñatira bidean bost zubiren gainetik pasatzen zen trena: Zubiate,



Ezkerreko argazkietan, trenaren erdiko hiru ardatz lotuak, eta lokomotora hamaikagarrena zela adierazten zuen zenbakia.

Argazki nagusian, Oñatiko linean erabilitako lurrin-makina; azpian, non, noiz eta nork egin zuen erakusten duen plaka.

Madalena, Zubillagako bi eta Osinurdin. Gainera, bi tunel txiki zituen: Mikelezkua eta Zubillagako ermita atzean zegoena. Geltoki nagusia egungo postetxearen etxea izan zen. Lineak beste bi geltoki izan zituen: Elorregin eta Zubillagan. Eta geraleku bat Torreazon. "Madelanen beste geraleku bat egin zuten trena desagertu baino lau bat urte lehenago. Geltoki nagusiak eta Torreazonko geralekua aldi berean egin zituzten, 1923an hasita", aipatu du.

VASCO-NAVARRO Lizarra-Gasteiz-Durango egitasmoa 1882ko martxoaren 28an onartu zuten Herran anaiek. 1887an hasi zituzten lanak eta urtebete geroago The Anglo Vasco Navarro Railway Company Limited enpresak hartu zuen bere gain ustiapena.

Gasteiz eta Leintz Gatzaga arteko zatia 1889ko otsailaren 13an zabaldu zuten. "Arazo handiena zen Leintz Gatzagatik Eskoriatzarainoko bide zatia nola egin. Azkenean, errebuelta askoko ibilbidea egin behar izan zuten", dio.

Kostata, 1915eko urrian heldu zen trenbidea Eskoriatzara. 1918ko otsailean Eskoriatza-Arrasate zatia zabaldu zuten, eta urte bereko abenduaren 18an Bergarako Labegarietatik Mekolalderainokoa. Azken tartea Arrasate-Labegarieta izan zen: 1919ko martxoaren 3an inauguratu zuten. ■



Lidergoa

KOMUNIKAZIOA



Itsaso Manias
Ikerlaria

H auteskundeen atarian gaudela, orain gutxi albiste izan diren hainbat izen propio abiapuntu hartu –Artur Mas, Arantza Quiroga, Alfonso Alonso edo Arnaldo Otegi bera–, eta liderren ezaugarriez hausnartu nahi nuke. Lidergo politikoaz hitz egin nahi dut, bereziki. *Lidergo* berba sarritan entzun dugu, hitzetik hortzera dabilen terminoa baita: lanean, hezkuntzan, negoziotan, kirolean, politikan, etab. Definizioz, liderrak besteengan eragiteko gaitasuna du; bere jarrerak edota hitzek ahalmena dute bere sokakoak ez direnak erakartzeko eta erkide dituzten helburuak lortzeko.

Liderren profila ikerketa esparru ezberdinetatik arakatutako jakintzagaia da, eta, noski, enpresa komunikazioaren ikuspuntutik ere heldu zaio ikerketa objektu horri. Korporazio handi eta txikien aginte estrategikoen hobetsitako profila baita liderrarena.

Baina zer eskatzen diogu lider bati? Zeintzuk dira lider on baten ezaugarriak? Komunikazioaren ikuspuntutik, ezinbestekoa da berbazko eta barbarik gabeko komunikazioa ongi menderatzea. Txema Ramirez de la Piscina EHUko irakasle eta bozeramaileen trebakuntzan adituak dio egungo merkatuak eta hedabide digitalen inperioak eledunari eskatzen diola bizkortasuna, zehaztasuna, argitasuna, abilezia dialektikoa eta zuzen hitz egitea. Sinesgarritasuna da, beharbada, ezaugarri



PMK

horietatik guztietatik lortzen nekezena.

Eta zer da lider bat jakituriarik gabe? Jarraitzailerik gabe? Deus ere ez. Dena den, hobe da sare sozialetan jarraitzaile gehiagoren usnan ibili beharrean, jakituria balioan jartzea eta gogoeta azkarrak egiteko trebetasunari erreparatzea. Haien esposizio mediatikoa noraino, ordea?

Gauza guztiei bezala, horri ere hartu behar zaio neurria; lidergoa desgastatu egin

baitaiteke. Politika kudeaketarekin egunero harreman zuzena izateak laguntzen du horretan. Mitinekin aspertzea desegokia da, nekarazi egiten dute entzulea; areago, hasi aurretik badaki zer esango dioten. Iñaki Mendiguren idazle eta editorearen aholkua da, noizean behin, ezusteko suspergarri batzuk ematea. Bestela esanda, diskurtsoak gatz-pipertzea. Predikazio eta sermoi gehiegirik ez, eta, ahal bada, kirtenkeriarik gabe. Dena neurrian, auzo-lotsa sentiarazi gabe.

Liderraren aferan demografiak ere agintzen du: halako liderra, nolako gizartea. Euskal Herrian hitzari baino gehiago ekintzari begiratu izan zaio, eta, beraz, kausan larrua utzi dutenek lortu izan dute laudorio gehien.

Badira erreferente edo ikur bihurtu direnak ere, haien lidergoa iluntzen saiatu arren, sendotu egin direnak. Finean, mezua behar bezala transmititzea artea dela esan daiteke, gutxi dakite hori ongi egiten. Gehienetan, politikariak komunikazio adituz inguratzen dira; detaile txikiak ere lekua du haien komunikazioa planean. Halere, kazetarien aurrean, liderrak gai izan behar du hitzartu gabeko galderak erantzuten. Estalkirik gabe, protokolorik gabe. ■

GADGETMANIA



Jon Berezibar
jberezibar@goiena.eus



ENERGY TAB 9 NEO 2

Tableta | Energy Sistem | 129 euro

Prezio merkean, Androiden azken bertsioa darabilen tableta da. Normalean, gama baxuko gailuek ez dute Android Lollipop bertsioa onartzen. Diseinuari dagokionez, plastikozko eta gomazko azalerak dauzka eta microUSB sarrera ere badauka, kanpo-memoriarako edo bestelako periferikoak konektatu ahal izateko. Pantailaren kalitatea, ordea, txikia da, eta kamerak ez du bereizmen handirik eskaintzen.

PUZZLE PHONE

Telefono modularra | Circular Devices | 399 euro

Ordenagailuekin bezala, telefonoa moduluka eraiki daiteke, beharren arabera. Hiru modulu nagusi ditu: *garuna*, prozesatzailearekin, memoriarekin eta kamerekin; *bihotza*, bateria eta sentsoreak; eta *bizkarrezurra*, pieza guztien euskarria, neurri askotako pantailekin. Osagarriak eta elementuak gehitu daitezke, eta erabiltzaileak bere nahien arabera pieza bat edo beste erabil dezake.



ODIN

Sagua | Serafim | 60 euro

Argi-izpien proiektzio elektro-optikoaren bitartez, sagu tradizionala ordezkatu eta atzamarrekin erabiltzeko eremua marrazten du Odinek mahaiaren azalera. Eskua erabat libre uzten du, eta, posizioa naturalagoa denez, sagu tradizionalaren erabilpenak eragin ditzakeen lesio eta kalteak ekiditen ditu. Bi botoi eta mugimenduetarako esparrua sartzen dira proiektatutako eremuan.



Errezetaren egilea: Maddi Artzamendi | @maddiarz |

Banilla eta kakao kiribilak



Osagaiak

Gurina, 75 g

Azukrea, 50 g

Gatz apur bat

Banilla-esentzia,
koilaratxokada 1

Irina, 100 g

MASA ERDIBITU
ETA GERO:

Kakao purua, 10 g

Irina, 10 g

Prestaketa

1. OSATU MASA KATILUAN

Gurina, azukrea, gatza eta banilla-esentzia nahastu katiluan. Gehitu irina eta jarraitu, masa leuna izan arte.

2. MASA ERDIBITU

Bi katilu txikitan masa erdibituko dugu; pisua zehatza dela ziurtatzeko, pisatu baskulan. Gehitu katilu bateko masari kakaoa eta nahastu, guztiz integratuta egon arte, eta egin gauza bera irinarekin eta beste

katiluko masarekin. Orain, masa bakoitzak bere kolorea izango du. Film gardenarekin estali eta utzi hozkailuan 40 minutuz.

3. FORMA EMAN

Labea piztu 180 graduan. Atera masak hozkailutik eta arrabolaz lauki-luze bat egin bakoitzarekin (20x12 cm). Film gardenara jarri azpitik eta gainetik, masa ez itsasteko. Bi lauki-luzeak bata bestearen gainean jarri

–azpian banilla eta gainean kakao– eta bildu, zilindro antzeko bat lortu arte. Film gardenarekin estali eta utzi hozkailuan 30 minutuz. Atera masa hozkailutik eta labana zorrotz batekin moztu; 1 cm-ko lodiera izan beharko dute, eta, horrela, hogeit bat kiribil egingo ditugu.

4. EGOSI

Jar itzazu gurpilak erretiluan eta egosi 15 minutuz. Atera labetik eta laga hozten.



Beñat eta Galder Azkarraga Goitia

Aramaio. 2,600 eta 2,700 kilo. Azaroaren 8a. Gurasoak: Jone eta Iñigo. Argazkian, lasai-lasai sehaskan.



Naroa Urzelai Bardon

Oñati. 3,480 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Ainhoa eta Xabier. Argazkian, Naroa, aitaren besoetan.



Xabat Garay Urrutia

Arrasate. 3,200 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Iraitz eta Egoitz. Argazkian, Xabat, sehaskan lo.



Izei Korta Iñarra

Oñati. 3,180 kilo. Azaroaren 6a. Gurasoak: Ana eta Iñaki. Argazkian, Izei, sehaskan lo.



Markel Perez Romaratezabala

Oñati. 2,990 kilo. Azaroaren 5a. Gurasoak: Maialen eta Enaitz. Argazkian, Markel, amama Natirekin.



Jakes Olalde Ayeche

Oñati. 3,570 kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Sonia eta Egoitz. Argazkian, Jakes txikia, sehaskan.



Endika Lopez Egurrola

Zumaia. 3,600 kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Izar eta Juan de Dios. Argazkian, Endika, amarekin eta amamarekin.



Alma Galan Rico

Arrasate. 3,810 kilo. Azaroaren 4a. Gurasoak: Jessica eta Antonio. Argazkian, Alma txikia, aitaren besoetan.



Lierni Iturbe Garro

Arrasate. 3,140 kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Eneko eta Eli. Argazkian, Lierni, sehaskan.



Aner Larrinaga Beitia

Eskoriatza. 3,600 kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Izaro eta Haritz. Argazkian, mutiko jaioberria, sehaskan.



Malen Iñurrategi Alberdi

Aretxabaleta. 3,300 kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Nerea eta Aitor. Argazkian, Malen, lasai-lasai sehaskan.



Ekain Manso Pascual

Aretxabaleta. 4,060 kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Deiane eta Asier. Argazkian, Ekain, gurasoekin.



Nerea Kortabarria Aranzabal

Aramaio. 3 kilo. Azaroaren 2a. Gurasoak: Itsaso eta Oier. Argazkian, Nerea, gurasoekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten. Deitu 943 25 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN egoitzara.

Astelehenero 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Arrasateko Udalarekin ere euskaraz



ARRASATEKO UDALA